

Niko Etxart

“Zuberoatik ikusten dut mundua, horregatik ez naiz ez modan jartzen, ez desmodatzen”

● **Munduko Futbol Kopa.** Jarraitu Hegoafrika argia.com-en ● **Publizitatea.** Frogatu gabeko egiak iragarkietan ● **Ustelkeria.** Barrikabason ezingo da txalet gehiago eraiki ● **Maria Luisa Mangado (NaBai):** “Militantea ez den jendeari ingelesaren abantailak baino ez zaizkio ailegatu” ● **Lip Dub.** Euskara bultzatzeko erabiliko dute ikusentzuteko fenomeno berria



* 7 urtetik gorakoentzat.

25
€

Prezioa



Harpidedun prezioa

Hartu zure ardi erromesa
eta ibilbidea jarraituz...
segi Jakue bidean beeeeera.



ArdiBidez

mahai jolasa

ESKAERAK: Tel. 943 371 545 • www.argia.com • denda@argia.com

- 4 **Deabruaren abokatua: Miguel Angel Perez Lasa.**
Sustrai Colina.

Gaiak

- 16 **Lautada Ikastola. Lehenengo urratsak.**
Urko Saenz de Buruaga.

Iritziak

- 20 **Ttakun (h)errenka. Zer kotizatu.** Ana Urkiza.
21 **Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
22 **Euskal Herria Parisen aipagai.** Jakes Bortairu.
HH. Edu Zelaieta.
23 **Andaluziar bat katalanez.** Paula Kasares.
Hernaniko. Joxemari Ostolaza.
24 **Bertso berriak. Zuri, zurekin, baina zu gabe.**
Aitor Albistur.

Erdiko kaiera

- 25 **LipDub, euskararen jostailu.** Lander Muñagorri.
28 **Bordari, hitzen ibilbidea.** Oier Guillan.
30 **Liburuak.** Xabier Etxaniz Erle.
31 **Diskoak.** Iker Barandiaran.
32 **Ezpalak.** Jon Torner.
33 **Abarrak.** Mikel Asurmendi.
34 **Denbora-pasak.** Ana Zambrano eta Kike Amonarritz.
36 **Zientzia eta teknologia.** Joxerra Aizpurua.
37 **Landareak.** Jakoba Errekondo.
38 **Denboraren makina: Roland Garrosetiko euskal txapelduna.** Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 42 **Tobin tasa. Urtean 700.000 milioi euro aurrezteko mundu zerga.** Daniel Udalaiz.
44 **Maria Luisa Mangado, NaBaiko parlamentaria hezkuntza gaietan: "Jende askok barneratu du ingelesaren aldeko diskurtsoa".** Gontzal Agote.
46 **Bero-beroan.** Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 **Net Hurbil. Mikrouhin labea, sukaldeko erregina ala sorgin gaiztoa?** Pello Zubiria.

Azkena

- 50 **Dogmak.** Itxaro Borda.

39 | Barrikabaso, aurrekaria ote? | Unai Brea

Eremu babestuan dozenaka txalet erai-
kitzearekin tematu ziren Barrikako
(Bizkaia) udal agintariak, baina talde
ekologista baten ekimenak eragotzi
die. Lehen aldiz, epaileek bertan behe-
ra utzi dute EAEn egindako lur birsail-
kapen bat, inguruaren paisaia-balioa dela eta. Hala ere,
ez dute eraitsiko dagoeneko eraikitakoa.



5 | Ekologia eta osasuna, publizitatearen amuak | Unai Brea

18 | Hegoafrika, Apartheidetik Munduko Kopara | Lander Arbelaitz

10 | Niko Etxart | Sustrai Colina

Musikaria bere etxean bisitatu dugu, eta
solasaldi lasaian, barruak hustu ditu.
Kontzertuz kontzertu zonbi bat izaten buka-
tu zuen garaiaz mintzatu zaigu, Madrildik
bere irudiaz egin zuten erabileraz, musika-
gintzaz, bizitzaz.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estibx Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxes: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Antza. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua





“Zirkoko azken tximinoak gara”

Miguel Angel Perez Lasa
Primerako epailea

Ez bazaizue elkarrizketa hau gustatzen...
arbitroaren errua da.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Zergatik akordatzen da hainbeste jende arbitroen amekin?

Errazena delako. Penagarria da jendeak bere miseria gurekin ordaintzea. Etsigarria, XXI. mendean halako errespetu falta nabarmenak egotea. Gu ere kirolariak gara, pertsonak, eta tarteka hanka-sartzeko eskubidea izango dugu, ala?

Jokalariek zuek engainatzeko duten eskubide berbera.

Nola hartu liteke tranpa bertutetzat? Epailea engainatzen denean zergatik kritikatzten da arbitroa eta ez tranpatia? Gizartearen beste zer arlotan ikusten da hori? Zergatik ez da alderantziz gertatzen?

Galdera gehiegi gauza onerako.

Nola esan daiteke Maradonak eskuz sartu zuen gol famatu hura “Jainkoaren eskua” izan zela? Jainkoaren eskua ez, deabruaren eskua izan zen!

Jainko ustekoa, dokumentu bat ez sinatzeagatik nazioarteko epailea izateko bidea itxi zizuna.

Ez da arantza bat, bizkarrean sartuta daradan ezpata baizik. Zorionez, hankak moztu zizkidaten arren, korrika jarraitzen dut, eta ordutik askoz gehiago gozatzen dut arbitratzen.

Ez dakit zergatik, arbitro ohiek hedabideetan banatzen duten egurra ikusita. Masokista agian?

Batzuena, tristea ez ezik, saldukeria da. Bada-kite zelaian zer-nola bizi diren gauzak, baina hedabidearen komenientziatzko presioak irentsi, eta edozer gauza esateko gai dira polemika sortzeagatik.

Papera saldu behar dela, amigo!

Bideo-arbitrajea horrexegatik ez dutela jartzen uste dut. Ez delako komeni. Polemika ez balego zeri buruz hitz egingo luke jendeak? Zeri buruz idatziko litzateke? Polemika gabe futbolak asko galduko luke.

Eskekrrak jokalaria asko jainkotutako mukizuek diren.

Zelaitik kanpora egin dezatela nahi dutena baina zelaian nik agintzen dut. Masa idoloak izan litezke egunerokoan baina zelaian bat gehiago dira. Autoritatez egin behar diezu aurre, eta errespetua irabazteko beldur apur bat izan behar dizute, bestela...

Ziur zerrenda beltzak daukazuela!

Badakigu nor erortzen den errazki, nor den probokatzailea, nor borrokazalea, nork egiten duen salto ukondoak zabaldua... Esan deza-gun elkar oso ondo ezagutzen dugula.

Epaile bat behar izate hutsa ez al da porrota?

Jokalariek zintzoak balira ez litzateke arbitrorik behar, baina ez dira eta horregatik gaude gu. Ulergaitz zaidana da sekulako boterea daukagula, eta hala ere, zirkoko azken tximinoak gara. ■

Publizitatea

Ekologiarekin eta osasunarekin gezurretan

Ekologiarekin eta osasunarekin zerikusia duten argudioak barra-barra erabiltzen dira publizitatean. Dagoeneko ohituta gaude entzuten enpresa kutsatzaile bat ingurumenaren alde ari dela, edo elikagai arrunt batek osasunari mesede handia egiten diola. Mezu desegoki horien aurkako neurriak hartu dira azken urtean European nahiz Espainiako Estatuan, baina gauzak ez dira gehiegi hobetu, zenbait ahotsek salatzen dutenez.

UNAI BREA

HERRITARROK, edo bestela esanda kontsumitzaileok, gero eta garrantzi handiagoa ematen diogu ingurumena zaintzeari, hala nola bizimodu osasungarria izateari. Iragarki sortzaileek ondo dakite hori, eta publizitatean igarri egiten da. Ingurumena eta osasuna amu bihurtu daitezke produktu bat erakargarri bihurtzeko eta iragarleek maiz erabiltzen dituzte biak ala biak, merkatuan kokapen onaren bila. Baina argudioak modu desegokian

aurkezten dituzte askotan, baita legez kontra ere. Hala salatzen du hainbat elkarte, kontsumitzaileenak nahiz ekologistak. Elkarte horietako zenbaitekin hitz egin dugu, eta Espainiako Estatuko errealitatea deskribatu digute batik bat. Edozelan, gure mintzakide guztiek esan digute antzeko egoera dagoela Europako herrialde gehienetan, publizitatearen oilategian ordena ezartzeko zenbait araudi EB osorako eman izanak adierazten duenez.



Elikagai funtzionalen publizitatea hutsunea du legeak

Elikagai funtzionalak dira nutrizio hutsaz gain bestelako funtzio espezifiko baterako sortuak direnak. Kolesterolak gutxitzeko, adibidez. AUCeko Alejandro Peralasek dioskunez, “egia da osasun-funtzioa daukatela, arazoa da halako produktuak benetan eraginkorrak direnean kontraindikazioak ere badituztela; ezin ditu edonork hartu, eta hori ez da behar bezain argi uzten publizitatean”.

Elikagai funtzionalen etiketatutak araudi zorrotza bete behar dute, baina Peralasek dioenez, behin produktua erosita irakurtzen da etiketa. “Ez dago araudi argirik horien publizitateari buruz. Gu, eta beste elkarte batzuk, borrokan ari gara Europa osoan elikagai funtzionalen iragarkietan behar bezala adierazi dadin etiketetan agertzen den informazioa. Jendeak ez badaki oso ondo zer nolako produktua den, badaezpada erosi egiten du eta gero gerokak. Are gehiago pertsonaia ospe tsu bat agertu bada iragarkian”. Hor dute beste borroka fronte bat kontsumitzaile elkarrekin: honelako elikagaien publizitatean pertsonaia ezagunak agertzea eragotzi nahi dute.



Isidro Jimenez Madrilgo Ecologistas en Acción elkarteko kidea da. Publizitatea dauka lan-eremuetako bat, eta Consume hasta morir (Kontsumitu ezazu hil arte) proiektuari eskaintzen dizkio militantzia ordu gehienak. Esaldi sendo batekin hasi zaigu: “Egiten den publizitate gehiena legeaz kanpoko da, funtsezko informazioa ezkutatzeko dielako kontsumitzaileei”. Baieztapenak iragarleen sektore osorako balio du, eta baita ere, zer esanik ez, beren iragarkietan “ekologia” eta “osasuna” aldagaiak baliatzen dituztenentzat.

Publizitatea egiten dutenek bestelako iritzia dute. Espainiako Iragarleen Elkartek, iragarri genionean erreportaje honetan beraiei buruz esango ziren gauza batzuk ez zirela preseski gozoak izango, komunikazio arduradunen gida-liburutik ateratako erantzuna eman zigun: elkarteko kideek zorrotz sunez betetzen dute legedia, eta ez da sektore osoa juzgatu behar salbuespen bakan batzuenatik.

Elikagai iragarleen jokabideetako bat izaten da euren produktuak osasunari egiten dion onura modu orokorrean aipatzea, onura hori elikagaiaren osagai edo ezaugarri batekin lotu gabe, legeak hala egitea debekatzen duen arren

Autocontrol izena du publizitate egileen sektoreak bere burua arautzeko beren-beregi sortutako erakundeak –Frantziak ere badu berea: BVP, Publizitatearen Kontrolerako Bulegoa–. Martxoan eman zuen Autocontrollek iazko balantzea, eta izenburuak argi uzten du pozik daudela beren buruarekin: *La publicidad española reduce su ya baja conflictividad*. Arazo gutxi, eta gero eta gutxiago gainera. Txostenean emandako datuen arabera, 2009an 192 erreklamazio ebatzi zituzten, aurreko urtean baino 29 gutxiago. Milaka iragarki ematen direla kontuan izanda, ez dirudite larritzeko moduko kopuruak. Nola ezkondu hori Isidro Jimenezek esandakoarekin?

Elikagai arruntek ezin gaituzte sendatu

AUCek (Ikus-entzunezkoen Erabiltzaileen Elkartea) iazko uztailan bidalitako prentsaohar batek eman zigun gai honi buruzko lehenengo azterna. “Elikagaien publizitatean osasunarekin lotutako argudioak gehiegikeriaz erabiltzen dira”, zioten. Elkarteko presidente



“Gorputzaren defentsei” laguntzen diela esan ohi du Actimelen publizitateak. Danone enpresak patentatuta daukan L.Casei Immunitass bakterioa ei da horren erantzulea, baina hainbat ikerketek agerian utzi dute Actimelek ez duela beste edozein esnekik baino gehiago indartzen gure sistema immunologikoa. Iaz, AUC elkarteak lortu zuen hala zioen iragarkiaren lehen bertsioa kentzea, baina ez du eragotzi Danonek “zure defentsei laguntzen die” argudioa erabiltzen jarraitzea.

Alejandro Peralesek honela arrazoitzen du baieztapen hori: “Konbentzitu nahi gaituzte esne marka jakin bat ez dela, honezkero, esne hutsa, baizik eta ‘bizi iturria’, edo ‘sistema immunologikoa indartzeko primerakoa’, edo ...”. AUCek urteak daramatza esaten era horretako argudioak erabiltzea ez dela zilegi, ezin baitzaio jendeari sinetsarazi elikagai arrunt batek propietate terapeutikoak, edo osasun-prebentziorako egokiak, dauzkanik.

Halako argudioak, Peralesen esanetan, frogarik gabe botatzen dituzte iragarleek, espainiar legediak hala egitea debekatzen duen arren: “Ez dute erakusten esandakoa demos-

tratzen duen azterketa zientifikoa. Eta batzuetan, aipatzen duten osagaiak ez dauzka egotzi nahi dizkioten ezaugarriak; bestetan, osagaiaren propietateak benetan dira onuragarriak, baina haren kantitatea ez da nahikoa, eragin positiboa izateko hartzailearengan”.

Iragarleen beste jokabide bat, legediak debekatutakoa halaber, osasunerako onurak modu orokorrean aipatzea izaten da, elikagaiaren osagai edo ezaugarri zehatz batekin lotu gabe. Umeentzako jaki bat “%100 osasungarria” dela, esneki batek zenbait patologia prebenitzeko balio duela, txokolate-barra batek “hazten laguntzen” duela, jogurt bat “hezurrak zaintzeko aliatu perfektua” dela, esne marka bat “osasungarriena eta naturalea” dela... AUCek halako iragarki askoren aurkako erreklamazioak aurkeztu ditu Autocontrolen aurrean, eta behin baino gehiagotan lortu du publizitate hori kentzea.

Legedi antzua

Iragarleen gehiegikeriak saihesteko xedea duen legediak ia hamabost urte ditu Espainian, baina Peralesek huts egin duela dio, praktikan ezin izan delako behar bezala ezarri. “Besteak beste, agintariak industriarekin adostutako hitzarmenak kalte handia egin dute; horien arabera, ezin daiteke esan produktu batek zure defentsa *naturalei* laguntzen diela, baina bai zure defentsei laguntzen diela, esaterako”. AUCen kexua da azken batean emaitza bera lortzen dutela iragarleek gauza bat ala bestea esanda. “Ezarrita zegoen zer ezin zitekeen esan, baina hortik kanpora edo zer zen posible”.

Peralesen ustez, publizitatean mezu desegoki asko erabiltzea ahalbidetu duen beste faktore bat Autocontrol erakundeak berak ezarritako bereizketa izan da: batetik osasun-argudioak daude, eta bestetik argudio sanitarioak. Lehen multzokoak baimenduta daude, bigarrenekoak ez. “Arau horrek askatasun handia eman die iragarleei, nahi zutena esate-

www.eguzkilozejoya.com

EGUZKILORE®
Zuluaga

DONOSTIA: Hernani, 13 - BILBO - GASTEIZ
Zuluaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza



ko”, diosku AUCekoak, “argudio sanitarioa izango litzateke zerbaitek gaitz jakin bat sendatzeko edo arintzeko balio duela esatea; osasun-argudioek, berriz, ongizatearekin zerikusia daukate, modu orokorrean, eta hortik edozer gauza sar daiteke, sortzaileek ondo baino hobeto baitakite esaten dutena neur-tzen”. Azkenean, arauak arau, kontsumitzaileak debekatuta dagoen mezu bera jasotzen du.

Egoera hain zen larria, Espainiako Estatuan bezala mundu osoan, Europar Batasunak araudi bat onartu zuela 2006an. Horren arabera, iragarle guztiak behartuta daude Elikagaien Seguritasunerako Europar Agintaritzari (EFSA) jakinaraztera zein argudio erabili nahi duten euren iragarkian, eta EFSAk

"Europar Batasunak elikagaien publizitatea arautzeko onartu duen araudia aurrerapausoa da, baina publizistek guztiz argi ez dauden gauzak esaten jarraitzeko modua bilatzen dute"

ALEJANDRO PERALES, AUC

Urtero, Donostian, Espainiako Estatuko eta Latinoamerikako publizitate kanpaina onenei ematen zaizkien Sol sariak izan ditugu hizpide duela gutxi. Azken urteetan, haien ifrentzua diren Sombra (Itzala) sariak “banatu” izan ditu Ecologistas en Acción elkarteak Madrilén. Ezkerrean ikus dezakezuen Iberdrolaren iragarkiak 2008an eraman zuen Ikuzgailu Berdea saria. Euren publizitatean balore ekologikoak agertzen dituzten baina eguneroko jardunean justu kontrakoa egiten dutenei eman die Ecologistas en Acciónek “sari” hori.

eman behar du onespena. Onartutako argudioak zerrenda positibo batean sartzen dira, eta soilik zerrenda horretakoak erabili daitezke. Arazoa da zerrenda positiboa sortzeko epea luzatuz joan dela, eta bitartean lehengo irizpideak erabiltzen segitu dutela iragarleek. Azkenik, EFSAk orain dela hilabete inguru eman du argitara lehenbiziko zerrenda positiboa. Positiboa da, bai, urratsa, Alejandro Peralesen iritziz, baina arazoak ez dira hemen bukatu. “Araudia aurrerapausoa da, askoz marko zehatzagoa ezartzen duen heinean, baina oraindik ikusteko dago zerrendak benetan laguntzen duen anabasa hau ordenatzen, publizistek guztiz argi ez dauden gauzak esaten jarraitzeko modua bilatzen dute eta”. Oraingoz, enpresa askok egin duten hautua zera izan da: ez aurkeztu iragarkia EFSari, baldintzak betetzen ez dituela seguru ez badaude. EFSAren ezezkua jasotzekotan, ez dago publizitate hori erabiltzerik, baina ezezkua jasotzen ez duten bitartean eremu anbiguo batean daude, eta euren leloak zabaltzen segitzeko aukera daukate.

Energiaren eta automobilgintzaren industria “berdeak” direnean

Antzeko zerbait gertatzen da ingurumena argudio moduan erabiltzen duen publizitatearekin, baina kasu horretan erreakzioa, Espainiako Estatuan, autoerregulazio kode bat izan da. Neurria ez dute enpresek beren kabuz hartu, Ingurumen Ministerioak bultzatuta baizik, eta oraingoz energiaren eta automobilgintzaren sektoreei eragiten die.

Ministerioko arduradunek ikusi zuten gora zihoala ingurumenarekin zerikusia duten argudioen erabilera, eta ez zela beti modurik egokienean egiten. Azkenerrako, denak ziren “berdeak”. Neurriak hartzeko beharra sumatuta, autoerregulazio

kodearen aldeko apustua egin, eta aipatutako sektoreetako enpresa garrantzitsu guztiak, 22 guztira, kode horretan sartzea erdietsi zuten. Alde guztien adostasuna lortu eta gero, joan den irailean jarri zuten indarrean kodea.

Helburua zehaztasuna da. Ingurumenaren alde ari dela dioenak, horren zergatia azaldu beharko du argudio egiaztagarriekin. Hala, autoerregulazio kodeak ez ditu onartzen, esate baterako, potentzia eta ekologia bezalako lelo orokorrak, auto marka batzuen iragarkietan ohiko bilakatu direnak. Ezin dira ekologia, ingurumena, jasangarritasuna eta abar aipatu datuak eman gabe. Eta datuok, gehienetan, konparatiboak dira. Saldu nahi duzun autoak gutxi kontsumitzen duela esan nahi baduzu, zeinek baino gutxiago kontsumitzen duen adierazi beharko duzu.

Autoerregulazioaren abantaila nagusia azkartasuna da. Edonork salatu dezake justiziaren aurrean ustez legea urratzen ari den publizitate kanpaina, baina epaitegiek erabaki hartu dutenerako kanpaina hori aspaldi amaituta dago, eta gainera ez dago ziurtatuta epaia salatzailearen aldekoa izango denik. Adierazpen askatasunaren aterkia baliatzen ederto dakite iragarleek, eta hori espainiar Ingurumen Ministerioi kide batek aitortu digu. Iturri beretik jakin dugu, halaber, Europa iparraldeko herrialderen batean adierazpen askatasunari muga batzuk jarri dizkiotela, eta zuzenean debekatu dutela auto bat ekologikoa dela esatea, datuekin ala gabe. Ez dirudi zentzugabekeria handia.

"Autoerregulazioa bai eta legea bete ez?"

Abantailen ondoan, desabantailak ere baditu, eta ugari, nork bere burua arautze horrek. Hasteko, guztiz boluntarioa da kodea sinatzea. Bestetik, eta telebista-kateek beren pro-

gramazioaren edukia zaintzeko adostutako autoerregulazio kodearen kasuan bezala, honetan ere aurrez legedia betetzen ez zuten berberak izenpetu dute akordioa, alegia, zer eta legedia baino gogorragoa den barne-arautegia.

"Enpresa sinatzaileak ez al zeuden behartuta legea betetzera?", galdetzen zuen iaz

Ecologistas en Acciónek, kodea sinatu zenean zabalduetako prentsa-oharrean. Bereziki, ekologistek gogorarazi nahi izan zuten automobil iragarki guztiek, salbuespenik gabe, erregai kontsumoari eta CO2 igorpenei buruzko informazioa arautzen duen dekretua urratu egiten zutela. Iragarleak behartuta daude informazio hori, gutxienez, iragarkiaren informazio nagusia bezain erraz ikusteko moduan ematera.

Autoerregulazio kodea sinatu aurretik ez zuten egiten, eta ondoren ere ez. Azkenean, Europar Batzordeak Espainiako Estatuaren aurkako prozedura ireki zuen joan den otsailean, Ecologistas en Acciónen salaketa bati men eginez.

Arau jakin bat urratzetik harago, arazoaren muinera jo nahi luke, ordea, Isidro Jimenezek: "Egia da mezuek eboluzionatu egin dutela pixka bat. Lehen hosto berde bat jartzen zuten iragarkian eta kito, orain ari dira, enpresa batzuk behintzat, argudio landuagoak ematen, baina beti inolako kritikotasunik gabe. Ekologismoaren ideiarekin lotzen da auto batek CO2 igorpenak zertxobait murriztea. Baina ezin daiteke lotu energia gastua ingurumenarekiko onurarekin, hori manipulatzea da. Eta auto bat fabrikatzeko zein erabiltzeko energia asko gastatu behar da". Eskandinaviako herrialderen batean ohartu dira dagoeneko horretaz, baina hain urrun dago zein den ere ez garela gogoratzen. ■

Espainiako energia eta automobilgintza sektoreetako enpresa gehienek sinatu duten autoerregulazio kodearen arabera, ezin izango dira erabili "ekologiko" bezalako adjektiboak hori justifikatzen duen daturik eman gabe



Dive Tarpoón urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoón@euskalnet.net
www.divetarpoón.com

Niko Etxart

«Enetako, euskara laborategi bat da»

Zergatik da arrunta behinola sinesgaitza zena? Zergatik da sinesgaitza behinola arrunta zena?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

“...Pariserat banüazü...” kantatu baino lehen joan zinen zu Pariserara.

Sortu eta bi urtera. Gure aitak elizaren zerbitzuko lan bat kausitu zuen bertan, eta ni soldaduskatik landa baizik ez nintzen Euskal Herrira itzuli. Nahi ala ez, haurtzaroan eta gaztaroan bizi eta ikusitakoek markatzen dute izaera, eta egun, geroz eta garrantzi handiago ematen diot ene paristar mentalitate hori atxikitzeari. Nire burua zinez Euskal Herrian finkatzeko Paris giblean utzi nuenean, Paris baino gauza gehiago utzi behar izan nituen bazter hemengo jendearekin ongi moldatzeko. Beharrik bitxikeriak errazago onartzen zaizkiola artistari. Baina adibidez, ekimena eta gauzak egiteko ausardia Parisi zor dizkiot. Hemen taldeak, diskoak edo proiektuak sortzen ibili naizelarik, hemengo ene garaiko gazteek metxa falta zuten. Kostua, onarpenik eza... Beti zuten aitzakia bat. Nik, aldiz, ene paristar mentalitatearekin dena posible zela pentsatzen nuen beti. Gaur egun, mentalitateak berdindu dira, baina orain dela 40 urte euskaldun jendea oso apala zen.

Ez da beti erraza haur bati Euskal Herrian euskal kontzientzia pasarazten, baina Parisen...

Gure aitak 37 urtez lan egin du hiriburuan, baina Parisen bizi izan da Altxurükün balitz bezala. Etxean euskaraz mintzo zen, boneta buruan joaten zen karrikara, eta segur naiz ez duela sekula kuriositaterik izan Louvrera joateko. Ez, gure aitaren aste-hondarretako gutizia Euskal Etxera joatea zen. Hor ezagutu ditut manexak, hor nahasi naiz Hegoaldekoekin, eta geroxeago errefuxiatuekin. Horrek piztu dit euskal grina, nahiz eta kontzientzia militantea askoz berantago etorri zaidan.

Gauzak diren bezala, luzaz *golfo* bat izan naiz. Eskolaz paso egiten nuen, eta musika eta futbola baizik ez zitzaizkidan inporta. Baina bakantza oroz Altxurüküra jiten ginelako, etxean euskal giroa genuelako, eta astebururo Euskal Etxean sartua ginelako, oso giro euskaldunean bizi nintzen etxea Montparnasse inguruan izanik ere.

Soldaduskatik landa, Euskal Herrira itzultzea deliberatu zenuenean ez zenuen pentsatu zure ametsen betetzeko Paris baino egokiagorik ez zela?

Luzaz pentsatu dut hori. 14 urterekin finko nekien musikaria edo kantaria izanen nintzela. Ene buruan, alta, argi ikusten nuen euskaraz kantatzea ene plazerarendako zela, baina hortik bizi nahi banuen aukera bakarra frantses kantaria izatea zela. Ni baino kide zaharragoez osatutako talde batean jotzen nuen Parisen eta 15-16 urterekin gaitzeko arrakasta genuen auzoan. Pentsa, Eddy Barclay-ren diskoetxe ospetsuko enpresari batek begiz jo eta kontratua eskaini zidan frantses kantari gisa karrera egiteko. Hori izan da ene bizitzan

Nortasun agiria

1953ko maiatzaren 9an sortu zen Altxurükün. Haurtzaro eta gaztaroa Parisen iraganik, 21 urterekin itzuli zen Euskal Herrira, kantu tradizionalen, dantzaldietan, zein bakarlari euskal panorama musikaleko izen esanguratsu bilakatuz. Bide luzea luzatzeko asmoz, udazkenerako bakarkako disko berria prestatzen ari da.



FESTAROA 94
NIKO ETXART
DONOSTIA
UGENIA Antzokia
INDUAK 3. Larunbata
10 l'erdietan



soldatapean egon naizen urte bakarra. Nicoleta edo Michel Sardou izan ziren bezala, ni ere etorkizuneko frantses kantari hautatuetan nintzen. Baina 1972a zen, hippyen mugimendua pil-pilean zegoen, eta etengabe errepikatzen zuten norbere lurretara itzultzeko ideia hori, eta batez ere, hiriburutik kanpo ere dena zela posible. Egun batetik bestera erabaki nuen euskaldun kantari bat izanzen nintzela, eta ene zizpa sorbaldaz aldaturik, Barclaykoei agur esan, eta geroztik ene kontura ibili naiz.

Zenbaitek rocka euskaraz entzun baino nahia-goko zuen frantses kantari izan bazina.

Garai haietan Pantxoa eta Peio, Manex Pagola eta folka ziren modan. Nik Odol Berria izeneko folk taldea nuen, Jean Mixel Bedaxagarrekin ere *a capela* kantatzen genuen, baina banekien bizitzeko dirua behar zela, eta horretarako bide errazena dantzaldiak ziren. Dantzaldi horietan, ipurdiak mugitzeko rocka behar zen eta horregatik hasi nintzen euskaraz rock dantzagarria lantzen. Parisen ere kantatzen nuen rocka euskaraz, baina gaztetan erradikala izaten zara, eta rocka ere hala-

koa zen. Banekien hemen rocka gaizki ikusi zela, euskalduna oso kontserbadorea zela. Batzuentzat rocka euskaraz egitea euskara zikintzea eta traizionatzea zen, bekatu mortala. Pentsa, autoko gurpilak ere zulatu izan dizkigute! Gure aitzineko belaunaldiaren mentalitatea hori izanik ere, gazteak alde genituen, eta zorionez jendea saldoan mugitzen genuen. Anje Duhalde eta bioi egotzi zaigu euskal rockaren aitzindaritzaz, eta gaur egundik begiratuta oso titulu ederra da, baina urte haietan ez zen beti goxo.

Kasualitatea da euskal rocka euskal periferia-tik sortu izana? Josu Zabalak ere askotan esaten du Hertzainak Gasteizen baizik ez zitekeela sortu.

Ez da casualitatea. Paristar mentalitateari zor diodan ausardiak eraman nau euskal rocka sortzera, eta Paris periferia da Euskal Herriarentzat. Gurea *underground* zen. Odol Berriarekin folka eginez edo kantu tradizionalak kantatuz askoz arrakasta handiagoa nuen rocka eginez baino. Nik ez dut euskal rocka sortzeko planorik egin. Nik euskal kantari

profesionala izateko egin ditut planoak. Horretarako burua nekatu behar duzu, eta oso logikoa zen dantzaldia euskaraz egin nahi banuen rocka euskaraz abestea.

Profesionala izateko, burua bakarrik ez, gorpuzta ere nekatu behar izan duzu.

Minxoriak-ekin urtean 170 kontzertu egiten nituen, eta horiei Niko Etxart bezala egiten nituenak gehitu behar zaizkie. Udako nire egun normal batean, esaterako, Larzabalen kantu tradizionalak ematen nituen eguerdiko aperitifa denboran, arratsaldean Niko Etxart bezala kontzertua Basauriko futbol zelaian, eta gauez Minxoriakekin dantzaldia Barakaldon. Martxa horretan ibili naiz anitz edanez, autoan lo eginez... Luzaz egin dut hori, hamar urtez tai gabe. Bidean ez dut sekula arazo handirik izan, baina azken bi urteak oso gogorak izan ziren. Bazen bulta bat totela nuela, eta ostatuan trago bat galdeztzeko ere norbaiten laguntza ezinbestekoa nuen. Zonbi bat nintzen. 1986ko goizalde batez, Bilbotik etxera nentorrela, autoak birako oso bat eman zidan autobidean. Ez nik ez autoak ez genuen deus izan, baina dantzaldiak uztea, ene estudioa muntatzea eta ene bizitza lasaitzea erabaki nuen.

Gaur egun zergatik gutxiesten da dantzaldia? Zergatik daude plazak hutsik?

Mentalitate urbanoaren ondorioak. Enetako erru handia da berbenetako musikaria gutxiesten. Gure geografian, dantzaldia euskal kantagintza zabaltzeko tresna izugarria izan da. Gainera, jendeak eskatu egiten zuen. Baina Euskal Herri jator, goxo eta puta honetan modan izan dena desmodatzen da laster. Semeei herriko bestetako dantza taldea zein den galdetzen diedanean ez dute jakiten. Kontzertua nork

eman duen, aldiz, beti dakite, talde ttiki bat izanik ere. Gure sasoiaren dantzaldiak zuen prestigioa kontzertuak du gaur egun.

Kontzertu taldeak ere krisiaz mintzo dira, alta.

Enetako musikari batek, artista batek, ez du negar egiteko eskubiderik. Hori da beti mantentzen saiatzen naizen urrezko arau bat. Noski, nik ere ikusten dut parametro anitz aldatu direla, diskogintzatik ateratzen diren etekinak ez direla lehengoak, baina ez dut sekula negar egin, eta ez dut negar egiteko gogorik. Bizitzeko behar dudana errutinak oraindik funtzionatzen dit, baina ez du esan nahi beste musikariarekin elkartasunik ez dudarik. Alderantziz. Bakoitzak bere burua salbatzera jotzen badu denak itozteko arriskua dago.

Baina ni baikorra naiz neurez, eta batzuetan baikorregia izanik ere, Alphonse Allais frantses idazleak zioenarekin bat nator guztiz. "Ilusio simple batekin zoriontsu izaten dakien gizona askoz abilagoa da errealitatearekin etsitzen dena baino".

Kasu, negarrik egiten ez duenak ez duela jaten esango dizu are abilagoak.

Anormala atzematen dudana da ACDC edo Bob Dylan BEC-era etortzen direnean jendea 80, 100, 150, edo 200 euro ordaintzeko prest egotea eta euskal kantari bat ikusteko 5 edo 10 euro ez ordaindu nahi izatea. Leku batzuetan sarrera kobratzeak bekatu bat dirudi! Iparraldean, jendea ohitua dago bere sarteak ordaintzen, eta nik behintzat, askoz hurbilago sentitzen dut ni entzuteko esfortzu hori egin duena. Hegoaldera joatean aldiz, biziki famatua izanik ere, anonimotasun bat bada. Adibidez, Azpeitiko kioskoan jarriko zaituzte, eta jendeak ordaintzen ez duenez, publikoa ostatu batetik besterako bidean

Madrilgo Niko Etxarten erabilera biziki urrundik bizi izan dut. Nik Zuberoatik ikusten dut mundua, eta horregatik iruditzen zait ez naizela ez modan jartzen, ez desmodatzen



Urki
TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria
Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com





OFF THE RECORD

Ordua

Arratsaldeko 4etan egin dugu zita Altxaiko Nikoren estudioan. Arratsaldeko lehen ordua da guretzat, goizeko lehena beretzat. Orhiko txoriak Orhi maite duen gisan, maite du gaua gau-txoriak. Lanak bukatu, anpliak piztu, eta bateriaren atzean esertzeko agindu dio Nikok bateria-jole esnatu berriari. Inprobisazio eta energia deskarga baten ondotik heldu zaigu partitzeko tenorea. Afalordua da guretzat, bazkalordua Nikorentzat.

ikusten duzu. Segur naiz, alta, kantari ultra-espainol bat ekarriko balute, sarrera kobratu eta denak hantxe geldirik eta adi egongo lirakeela.

Betidanik da nekeza norbere herrian profeta izatea.

Nik ez dut esan nahi Biarritzen denek Niko Etxart ezagutzen dutenik, baina badakit Iparraldean euskara gozatzen duen orok badaikiela Niko Etxart nor den. Gisa berean, badakit Hegoaldeko euskaldunek badutela Niko Etxarten aditza, baina badiela sektore anitz ez dutenak euskara bihirik ere entzun nahi. Hori hala, egia da modan izan naizela, multinazional batekin atera dudala disko bat, 40 Principales-eko zerrendetako 16. postuan egon naizela, nire kantuak entzun direla Espainia osoko diskoteketan... Baina hori dena Madrildik manatutako zerbaite bezala ikusi da beti, eta Madrilgo Niko Etxarten erabilera hori biziki urrundik bizi izan dut nik, Zuberoatik. Nik Zuberoatik ikusten dut mundua, eta horregatik iruditzen zait ez naizela ez modan jartzen, ez desmodatzen. Badakit, adibidez, Larrabetzura joaten naizelarik zale zenbait izanen ditudala nire izenak eramanik, baina fama edo ez fama, moda edo ez moda, aspaldi da ez dudala hori kontuan hartzen. Ez du inportantziarik enetzat. Ene

zortea eta pribilegioa da nik hautatzen dudala non eta zer kanta.

Kantatu aitzin sortu behar da, alta.

Musika sortzean ikaragarritzko plazera hartzen dut. Instintiboki, senez, lan erraza da niretzat. Askoz gehiago kostatzen zait hitzak idaztea, baina hor ere plazera dut gidari. Kantu batendako gaua zuritzea erabakitzen badut zaude segur ez dela guruzbide bat. Gaitzena lana abiatzea da, baina behin abiatuta... Enetako euskara laborategi bat da. Badakit ez naizela olerkari handia, baina uste dut badakidala kantu bat egiten. Musika sortzen hasten naizenean, deus esan nahi ez duen ingeles moduko batean xaramelatzen dut, eta bitxia dena da, diskoa grabatu arte ene musikariek bertsio hori baizik ez dutela entzuten. Harri-garria da, alabaina, euskarazko hitzak ezartzean kantuak beste nortasun bat nola hartzen duen. Gero batzuen gustukoa izango da eta besteena ez. Batzuek oraindik esango dizute, rocka ingelesez baizik ezin dela egin, ez frantsesez, ez gaztelaniaz, ez serbokroazieraz, eta are gutxiago euskaraz. Baina zorionez, onartua izateko xantza dut.

Ez zara olerkari handia izango baina *Ürrüti Jau-regiko Peirot Pastoral*a idatzi zenuen 2002an. Nola esplikatu euskara galtzen ari dela eta pastoralaren indartzen?

Hertsiki lotua da. Iparraldean, euskal kontzentrazioa txikia da eta beste molde batean funtzionatzen du. Hemen tradizio abertzalerik ez den lekuetan ere euskarak badu bere tokia. Anitz antolatzailek esango dizute oraino posible dela pastoralaren edo maskarada muntatzea herria azkar delako. Herri batzuetan pastoralaren egiteko argumentu nagusia da “orain ez badugu egiten berantegi izanzen dela”, “ahal duguno kanpokoei azkar garelako erakustea”. Horrek erran nahi du oso epe motzeko pertzepzioekin ari dela jendea, oraindik euskara aski erabiltzen dela herrian, baina itxaroten badugu hau eta hura ez direla gehiago hemen biziko eta kaka zaharra. Zuberoan, kontzientziatuak eta politizatuak ez diren gazteetan ikusten dut euskararen galtzea. Nostalgiaz bizi dute hizkuntza. Badakite haien aitak eta amak euskaraz mintzatzen zirela, harro dira hortaz, baina ez dutenez beste modu batez arrazionalizatzen, euren inplikazioa nostalgia hutsean gelditzen da. Zorionez, gure herrietan, gero eta jende kontzientziatuagoa ere bada, eta ederra da ikustea pastoralaren osaketarekin herri dinamika bat sortzen dela. Bizi zarela erakusteko modu bat da, eta nostalgikoa asetzeaz gain, kontzientziadunak ere bere mezua pasaratzen du. ■



EUSKARA zure aukera

Lehenengo urratsak

Evaristo musikariak *Por los hijos lo que sea* liburua argitaratu zuen 2001ean. Aitari hala eskaini zion: “Txikitako ikastetxean izan nuen moja batekin aurkitu zen aita urteetara, eta mojak: ‘Zure semeak, abesten duenean, gurutze bat erretzen du agertokian’; eta aitak: ‘Nik eskola onetara eramane nuen ba’”. Iaztik, Aguraingo ikastetxe hori ikastola da, eta ez dauka mojarik. Eta Evaristok, ikastolak antolaturiko aurtengo Araba Euskarazen abestian hartu du parte.

Testua eta argazkiak:

URKO SAENZ DE BURUAGA

ALDAKETAK EZ DIRA ERRAZAK. Eta eliza bezalako erakunde baten babespean urteak eman ondoren ikastola txiki bat aurrera ateratzea lan nekeza da. Hori ondo dakite Aguraingo Lautada Ikastolan. Egun, kooperatiba bat da, baina pasa den ikasturtera arte mojek zeramaten ikastetxea. Aldaketa ulertzeko lau urte atzera egin behar dugu. 2006an, mojek eskola utziko zutela adierazi zieten irakasleei. Mojarik gazteenak 68 urte zituen eta jubilazioa ate-joka zuen.

Baina kontua zaila da. Irakasleek bi urte eman zituzten ikastetxearen etorkizunari buruz eztabaidatzen, inolako adostasunik eta antolakuntza marko berririk lortu gabe, eta azkenean, 2008ko ikasturte amaieran, dena bertan behera gelditu zen. Beraz, mojek ikastetxearen gidari jarraituko zutela zirudien, moja eskola izaten jarraituko zuela, nahiz eta garai hartan irakasleen artean mojarik ez izan. Hain zuzen, zuzendaria lekaimeek beraiek jarri zuten.

Baina Partaide, Euskal Herriko partaidetza sozialeko ikastolak biltzen dituen elkarte, harremanetan jarri zen ikasleen gurasoekin, eta bide berri bati ekin zioten. Aste gutxitan, akordioa lortu zuten gurasoek: kooperatiba bat osatu zuten, eta 2008ko azken egunean eskola erosi zuten, titulartasuna eta eraikina barne. Lan moldea, ordea, ez zen gehiegi aldatu, harik eta iazko ekainean azken mojak Aguraingo ikastetxea utzi zuen arte. Esan daiteke, une horretan hasi zirela gauzak berrantaldatzen. Duela urtebete eskas baino ez.

Monoteismoa ez da bidea

Ordura arte zuzendariak zuen pisu guztia, dena kontrolatzen zuen, eta gainontzeko langileek ezer ez zekitela kexu da Maite Ortega,

“eta horrela ibiltzea oso zaila da”. Lautada ikastolako zuzendaria da Ortega, eta argi dauka zuzendariak ez duela izan behar denak inguruan dituen irudi zentrala. Hala, bost pertsonaz osatutako zuzendaritza taldea dute Agurainen: Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara dauden ikasgelak koordinatzeko lau pertsona eta zuzendaria bera.

Ikastolaren antolamendua talde horrek eramatea da helburua, baina pixkanaka, denbora eta dirua behar baitituzte. Bidea egiteko, beste ikastoletako esperientziatara ere jo dute. Esaterako, iazko Araba Euskaraz antolatu zuen Oiongo ikastolara. Teknologia berrietan aurreratuta dabilta Oionen; Lautada ikastolara kanaberak iritsi zaizkie, baina arrantzatzeke denborarik ez dute izan oraindik. Ordenagailu berriak, arbel digitala, ultraeramangarriak... eskuratu dituzte, baina ikastola berria martxan jartzen ahitu dituzte indarrak. Dena den, datorren ikasturtetik aurrera egunero ordenagailuekin ordu erdi edo ordubete aritzeko asmoa dute, ikasgaie-tan behar bezala integratuz.

Euskara bai, baina...

Moja eskola zen bitartean, B ereduko ikastetxea zen Aguraingoa, eta ikastola abiatu dute-nean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan D eredura aldatu nahi izan dute. Eusko Jaurlaritzak, ordea, ez die baimenik eman, gauzak poliki egin behar direla argudiatuz. “Hemengo arazoa zein da? Orain arte Agurainen bazegoela eskola publikoa D ereduarekin eta guk B ereduaren ematen genuela. Orain, guk D ereduaren jartzen badugu, eredu hori bakarrik egongo da Agurainen eta inguruan dauden herrietan, eta Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak ez die baimenik eman D eredura aldatzeko, gauzak poliki egin behar direla argudiatuz



Irudietan, Lautada ikastolako ikasleak. Eskuineko argazkian ikus daitekeenez, plastikako klaseak aprobetxatzen ari dira ikastetxea kolore alaiez janzteko.

nahiago du eskaintza zabalagoa egotea”, dio Maite Ortegak.

Baina Arabako Lautadan herri euskaldunik izatekotan, Agurain da hori, “eta betidanik gainera. Egia esan, eskola publikoek bultzada handia eman diote euskarari, orain indarrak batu behar ditugu”. Hain juxtu, D eredua ezartzeko administrazioari baimena eskatu aurretik, iritzia eskatu zieten ikasleen gurasoei. Hainbatek ez zuen ondo ikusi, denetik egon behar zuela uste zutelako, baina gehien-gehienak, oso portzentaje altuan, D ereduar- en alde agertu ziren.

Euskararen aldeko apustuak, eta orokorrean ikastola finkatzeko proiektuak, ekainaren 20an ospatuko du bere egun handia, Araba Euskaraz jaiarekin. Urte gogor eta nekezari amaiera emango dio festak. Denak, bai irakasleak eta bai ikasleak, aztoratuta dabilta, ospakizuna dela-eta, baina hurrengo egunean ere lanik ez zaiela faltako jakin badaki Ortegak, maila guztietan dituztelako beharrak. Espazioak moldatzea da, adibidez, lehentasun nagusietakoa; adin desberdinetako ikasleak euren artean elkartu behar ez izatea lortu nahi dute. Halaber, zaharra da erai-



kina eta obrak egin beharko dira, hainbat gauza konpontzeko eta eskola zaharberritzeko. Itxurari, behintzat, astindua eman diote: hormak margotu dituzte, eta pasilloak eta gelak kolore alaiez jantzi dituzte, ikastera gonbidatuz.

Bestelako kontuak ere baditu Lautadak. Herriko ikasleria eskola publikoarekin partekatzen dute, baina bi auzokideen arteko harremanak ez dira oso estuak. Publikoko ikasleak “ikastolakoak” ziren orain arte, eta beraiek berriz, “mojetakoak”. Elkarbizitza eta elkarlana hobetzeko aurrerapausoak ematen ari dira emeki, baina Maite Ortegak adierazi moduan, hasierak zailak dira. Ondoren, dena da errazagoa. ■

GUIKURI
nekazal etxea



Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)
T 945 464084 / 615782323
guikuri@euskalnet.net
www.guikuri.com



Apartheidetik Munduko Kopara

Abian da bost kontinenteetako milaka pertsona Hegoafrikara begira jarriko dituen Munduko Futbol Txapelketa. 19 ediziotan lehen aldiz, “kontinente ahaztuak” hartuko du horrenbesteko ikusmira sortzen duen lehiaketa, eta herrialdeak munduari erakutsi nahi dio Apartheid zaharra atzean utzi eta aurrera begiratzeko prest dagoela.

LANDER ARBELAITZ



WWW.FLICKR.COM/SOUTH_AFRICAN_TOURISM

LANAK IZANGO DITU. Mendebaldeko prentsak oso modu kritikoan aztertu du txapelketarako prestakuntza fasea, eta Hegoafrikan kexu dira, kolonialismo garaia gogorarazten dituzten titular gaiztoak eskaini dizkiotelako antolakuntzari, segurtasun eza eta txirotasuna behin eta berriz azpimarratuz. Hona BBCren webgunean maiatzaren 17an irakur zitekeena: “Hain arriskutsua al da Hegoafrika? –Titularra hori, eta lehen esaldia ondorengoa– Hegoafrika krimen biolento asko gertatzen diren lekua da”.

Lau haizetara zabaldutako mezu beldurgarriak eta nazioarteko krisiak eragina izango dute bisitari kopuruan, eta aurreikusitako 500.000 bidaiariak urrun geratuko dira. Gainera, FIFAk antolaturiko txapelketak ez du aldatuko pobrezia gorrian bizi direnen egoera; jabetzen direnean, dagoeneko konturatu ez badira, nola erantzungo dute?

Dena den, herrialdea prest da horrenbeste ilusio eta desilusio sortu dituen txapelketa hartzeko eta dudarik ez izan hilabete batez

Futbol txapelketa aitzakia hartuta, mintzagai dugun herrialdea irakurleei hurbiltzen saiatuko gara, ahalik eta fidelen, prismaren alde ezberdinetatik begiratuta

futbola izango dela jaun eta jabe, bai han, baita hemen ere. Kirol hau gustuko dutenek goi mailako norgehiagokez gozatua hartzeko abagune bikaina izango dute. Argia.com-en

ere (Hegoafrikarren Munduko Kopa izeneko kanalean) trataera berezia emango diogu txapelketari, bai Euskal Herritik, baina baita Afrikatik bertatik ere eguneroko jarraipena egingez. Horrez gain, finala jokatuiko duten astean, Hegoafrikaren egoerari buruzko erreportaje zabala argitaratuko dugu ARGIA astekarian.

Irakurle, susmatuko duzunez, ARGIA ez gara soilik futbolaz mintzatuko. Gauza asko erakusteko eta irakasteko dituen herrialdea da Hegoafrika. Futbolari protagonismoa emango diogu, baina ez protagonismo osoa. Futbol txapelketa aitzakia hartuta, mintzagai dugun herrialdea hurbiltzen saiatuko gara, ahalik eta fidelen, prismaren alde ezberdinetatik begiratuta.

Hegoafrika izugarri aldatu da azken 50 urteotan. Beltzek zurien autobusak har ezin

Argia.com-en egunero

● Futbola atalean, Ander Altuna kirol kazetariak egunak eman duena laburbilduko du bere kroniketan. Joxemari Ostolaza kolaboratzaileak futbola landuko du, baina ikuspegi kritikoago batetik. Bilardo zirikatzaileak berriz, futbol iruzkin ozpinak egingo dizkigu tabernako barratik.

● Juanjo Olasagarre idazle nafarrak gai librean herrialdearekin lotutako artikulua idatziko ditu egunero. 12 urte dira *Mandelaren Afrika* idatzi zuenetik, han egindako bidaia-oren ondorio. Bidaia kronika hura atzean geratu zen, ea zer emaitza ematen duten denboraren joanak eta oroitzapenen birgogoratzak.

● Lander Arbelaiz kazetaria Hegoafrikara joango da eta bertan egunez egun bizi eta ikusitakoak idatziko du.

● Multimedia alorra ere jorratuko dugu, argazki, diaporama eta bideo bidez. Apartheidaren aurka munduan egindako kartelen bilduma ikus daiteke kanalean, bakoitzaren data, egilea eta herrialdea jarrita. Herri bateko kartel politikoak herri horren historiaren hemeroteke fidagarriak izaten dira.



● Apartheidetik Munduko Kopara izeneko atalean, Afrikako herrialdeak jasan duen eraldaketa erraldoia ulertzeko klabeak topa daitezke, azalpen eta argazki ugariarekin.

● Irakurlearen Txokoa, irakurleak hartzaile soil izateari utzi eta kanalean parte hartzeko aukera izango du, iritzi, galdera edo proposamenak argitaratuz. Saiatuko gara ahal bezain ongien erantzuten.

● Twitter bidez idatzitako mezuak ere ikusgai izango dira. #hegoafrika etiketa duten mezuak agertuko dira, bai irakurleek bidalitakoak, baita guk Hegoafrikatik zuzenean bidalitakoak ere.

● Hemeroteke atalean, Argian orain arte Hegoafrikaz idatzitakoak topatu ahal izango dituzu, baita beste hedabideetako artikuluen interesgarrien bilduma eguneratua ere.

● Lotura interesgarriak ere jasoko ditugu, eta gaian sakondu ahal izango du nahi duenak. Alderdi, pertsona eta erakunde garrantzitsuen loturak eskainiko dizkiogu sail honetan.

zitzaketen herrialdea –guda zibilean itotzeko zorian izan ostean–, 30 urte ilegalizatuta egin zituen alderdi bateko presidente beltzak gidatzen du egun. Mandelaren miraria deitu izan diote askok. Asko dago hobetzeko (pobrezia, langabezia, ustelkeria eta Hies epidemia nabarmenenak), baina futbol txapelketa gorena herritarrek nola bizi duten jakin nahi dugu, ikuspegi alarmista alde batera utzi, eta bertatik ikas dezakegunari ere so eginez.

Koadernoak, grabagailua, argazki kamera, bideokamera eta ilusioa gainean hartuta, egu-

nero hango berri emango dizuegu. www.argia.com/hegoafrika helbidean irakurriko duzue handik zuzenean idatzitakoa. Sorpresa handiko bidaia izanen da, ez dudarik egin. Lurmutur hirian (Cape Town ingelesez) hartuko dugu lur ekainaren 23an eta Hegoafrika hiri horretatik 1.500 kilometro dagoen Johannesburgoko nazioarteko aireportutik utziko dugu uztailaren 15ean, behin txapelketa amaituta. Tartean zer gertatuko den? Errazagoa da asmatzea nork altxatuko duen kopa. ■



SANTURTZI

Ekainaren 18tik 27ra, herriko parkean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Zer kotizatu

Kanpotik edo barrutik, konpromiso edo inplikazioz, dermisa bakarrik ukituz edo epidermisa ere geure eginik, badauzkat nik hiru lagun, José Luis eta Ixiar, aurreko asteetan zuek lerrotutako ideiak laburbiltzen dituztenak.

Lehenengoa: asmatzailea edo “inbentorea” da. Kaleko hizkuntzan, “zoro bat”. Existitzen ez diren gauzak asmatzea da bere lana. Eta bi lan mota egiten ditu: bata, soldata irabazteko balio diona, jostailu lantegi bateko ikerlari gisa dihardu, gabonetarako jostailu berriak diseinatzeko. Lan polita izanagatik ere, alferrekotzat dauka. “Umeek astebetean alde batera utziko duten jostailuetan hainbeste inbertitzea ere...” esaten du. Baina tira, lantegiko ikertaldean dago eta lantegiak aurrera egiten duen bitartean, berak bere lana egiten jarraituko du.

Beste lana, ordea, lan orduraz kanpo egiten du: asmatzen jarraitzea da bere lana; jostailuak alde batera utzi eta burura etortzen zaion edozer gauza asmatzea da bere pasioa. Orain arte, bi objektu berri patentatu ahal izan ditu eta horiek dirutza bat suposatzen izan diote. Baina bera, patentatu gabe eta aurrera egin ezinik gelditzen diren gainontzeko asmaketez da kexu. Patentatu direnak bezain onak direla argudiatzen baitu. “Baina gainetik dagoenak ez badu ikusten, bada, ez du ikusten. Itxarotea tokatzen da”, esaten du frustrazio ukitu nabarmenez.

Bigarrena: bere lanbidea enpresak, berrikuntza eta kultura elkarrentzako lanean jartzea da. Hau da, enpresek berriro ahal izateko, artista batekin edo batzuekin harremanetan jarri eta produktu berriak sortzen saiatzea. Bada, egitasmo hauek, berrikuntzarekin lotuta egotean, diruz laguntzen dituzten

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padron



Rozas

erakundearen onespina behar dute eta ohikoak zaizkigun industria makinentzako denean, babes osoa lortzen dute baina sektorez aldatzea otu zaionean, zeharkatu ezinezko harresi batekin egin du topo. Lagun hau ere, beste begi batzuekin ikusten ikasi arte, ez dagoela zereginik kexuz entzun izan dut.

Hirugarrena: erakunde bateko komunikazioaz arduratzen da. Eta kexu da, saldu beharreko “saboréalo” kanpainarekin Euskal Herriari eman nahi diogun ikuspegi azalaz, hau da, turistikoz, eta kanpainaren hartzailetzat zehaztu den publikoaz: barnekoa areago, kanpoko baina. Horrek, gure nortasunaz asko esaten du. Nola zehaztu dugun

lehenik, kanpotik edo barrutik parte hartzeko egin dugun, eta norbanako bakoitzaren inplikazio gradua zein izatera bultzatzen gaituen.

Hiru adibide, bada, hurbilekoak zaizkigun profesional ezberdinek parte-hartzea eta inplikazioa nola bizi duten azaltzeko. Lanetik ikusita. Hots, horretara dedikatzen direnen ikuspegi, ahala eta ezina.

Baina lana halaxe da, soldata bertatik irabazi

edo ez. Eta kritikak, zein partaidetzak zein inplikazioak ezintasun hauei guztiei buelta emateko daude. Gauzak hankaz gora jartzeko...

Asmatzaileak badaki mundua ez duela bi urtean aldatuko. Komunikatzaileak badaki gobernu bakoitzak slogan bat aldaraziko diola. Eta berrikuntza sustatzaileak ondotxo daki erakundeetako ateak jotzen pasatuko dituela datozen hamarkadak. Baina saiatu saiatuko dira eta aurrera egingo duten urrats bakoitza, garaipena izango da hobekuntzara bidean.

Beranduegi batzuentzat, noski baietz. Denbora eta hobetzeko grina ez baitira, egundo, burtsan kotizatu. ■

Asmatzaileak badaki mundua ez duela bi urtean aldatuko.

Komunikatzaileak badaki gobernu bakoitzak slogan bat

aldaraziko diola. Eta berrikuntza sustatzaileak

ondotxo daki erakundeetako ateak jotzen pasatuko

dituela datozen hamarkadak. Baina saiatu

saiatuko dira eta aurrera egingo duten urrats

bakoitza, garaipena izango da hobekuntzara bidean

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

**HAURRAK
ETA
XAHARRAK
LEHENIK !!!**

UMEAK izateko
LAGUNTZAK KEN...

... eta pentsioak
TIPIAGOTU...



<JOANAK JOAN,
ETORKIZUNA ETORKIZUN;
ORAINA DA GURE,
ETA EZ BERTZE>

AXULARREK
Baina,
Bazuen
BERTZERIK

<HASERRETU BEHAR
DENEAN EZ HASERRETZE
DA BEKATU>

ETA HASERREA EZ KANPORATZEA,
ESTRESGARRI...

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

Euskal Herria Parisen aipagai

Pasa den maiatzaren 25ean hasi da frantses asanblada nazionalen Lurralde elkargoen erreformari buruzko eztabaida. Erreforma honekin Sarkozy instituzioen antolaketa sinplifikatu nahi omen du, eskuduntzak berbanatu eta dirua aurreztu. Kritika ugari entzun dira proiektuaren kontra eta besteak beste, 30 urteko deserdiratze aro baten ondotik, birzentralizazio joera azkarra ikusi diote anitzek egitasmoari.

Eztabaidaren karietara, Euskal Herria aipagai izan da diputatuen artean. Alabaina Poulou jaunak hitza hartu du Ipar Euskal Herrian erreformak hautetsi eta jendarteko sektoreen artean sortzen dituen kezkak aipatzeko: *Pays* egitura ezabatuz eta Departamenduari eskuduntza orokorra kenduz, azken 15 urteetan zutik ezarritako prozedurak, Garapen eta Hautetsien kontseiluak, lurralde kontratuak eta instituzioen arteko kooperazioa oinarririk gabe geldituko dira.

Duela urte bat pasa, erreforma aipatzen hasi zelarik bi Kontseilu horiek dokumentu bat helarazi zioten legea prestatzen ari zen batzordeari, hiru hipotesi marraztuz: *statu quo* atxikitzearena, egitura bati eskuduntza batzuen delegazioa eta Lurralde Elkargo propioa, Korsikan bezala. Denbora berean Batera plataformak, aukera



DANI BLANCO

garrantzitsua ikusiz, egiazko hordago bat bota zuen: Ipar Euskal Herriko ezagupen instituzionalari buruz eskatzen zuen herri kontsulta, berak antolatzea ahal bezainbat herritan, Euskal Herriaren ahotsa entzunarazteko. Ekimena arrakastatsua gertatu zen, hiru irakaspen argi utziz: instituzio arazoa bizirik da, herritarrek kontsultatuak izan nahi dute eta gehiago zabal bat Lurralde elkargo baten sortzearen alde da, hain

zuzen bi Kontseiluen azken hipotesia. Ondoko Biltzar Nagusian Batera plataformak proposamen berri bat zabaldu zuen: lau urteko prozesu politiko bat irekitzea, Euskal Herriko Lurralde Elkargoaren sortzeari begira.

Bitartean, lege proiektua ezagutu bezain laster, bi Kontseiluek lehen hipotesia galdutzat eman zuten eta bigarrenaren gauzatzeari lotu zitzairen. Lege proiektuak aurreikusituen zituen “*pôle métropolitain*” delakoak moldatzeko zuzenketak

landu zituzten Euskal Herriari aplikatu ahal izateko baina legearen kudeatzaileak ez zituen onartu, legearen izpirituaren kontra zihoazelako. Bigarren hipotesia kanpora! Baterak bere proposamenaren inguruan indarrak biltzen segitzen duen bitartean, hautetsi eta Kontseiluetako kide batzuk bi beldurren artean dudan dira: borrokan inplikatu ala deus gabe gelditu? ■

« Baterak indarrak biltzen segitzen

duen bitartean, hautetsi eta

Kontseiluetako kide batzuk bi

beldurren artean dira: borrokan

inplikatu ala deus gabe gelditu? »

TXANDAN

Edu Zelaieta



0-6 urte bitarteko haurrak hartzen dituen Hezkuntzako etapari deitzen zaio Haur Hezkuntza (HH) Hegoaldean. 6-12 bitarteko ikasleak Lehen Hezkuntzan (LH) aritzen dira eta 12-16 bitartekoak, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH).

Nire ustez, bistan da haurtxoek eskolan gero eta denbora gehiago ematen dutela, sistema kapitalistak aita-amok (etxetik kanpo) ekoiztera bultzatzen gaituen bitartean. Eredu honen ondorioz, ikastetxe anitzek bi urteko gelak txertatu zituzten aspaldi eta Haur Eskola franko ireki ziren hor-hemenka. Hala

HH

ere, eskaera sozial eskerga dela eta, 3 urte bitarteko haurtxo asko plazarik gabe gelditzen ari dira azken urteotan.

Apirilaren 20an argitaratu zen Oinarritzko Hezkuntzaren Dekretua: elebitasun integratzailea, Euskal Herriaren termino egokitua, normaltasuna..., baina HHren berririk ez. Izan ere, zabaldu ongi betazalak irakurle, LHk eta DBHk bakarrik osatzen dute Oinarritzko Hezkuntza egun: HH ez da oinarritzkoa, HHri ez zaio hezitzaile izaerarik onartzen, HH ez dago legez babesturik.

Susmoa dut, (EAEko) sistemakide agurgarriok, HH bi maiuskula huts direla. ■

Paula Kasares

IRAKASLEA

Andaluziar bat katalanez

Egunotan erruz ekarri dute berripa-peretara eta berriorri digitaletara joan den maiatzaren 24an Jose Montilla *presidentak* Espainiako Senatuako Autonomia Erkidegoen

Batzorde Nagusian egindako hitzaldia. Min-tzaldi hartan katalanean eta gartzelarian ez ezik, galego eta euskara apurretan ere busti omen zuen mingaina Generalitateko buruak belarri anitzendako minkor.

Estatuko hizkuntza aniztasunari lekuri eman nahi ez diotenak mutur beltz jarri ziren. Bitartean, egun horretan Estatuko hizkuntzetara itzulpenak egiteko kontratatutako zazpi itzultzaileei nahas-mahas galanta sortu zien Montillaren mingain bihurrituak.

Baina itzultzaileendako nahas-bidea bezala, bokazio espainiaza-le hetsia dutenendako xaxatzai-leak izan dira Montillaren hitzak eta bi dira, batik bat, hizkuntza fundamentalistei barkakizun iru-ditu ez zaizkienak:

Alde batetik, kostua: *presidentaren* apeta garestia atera omen zaigu denoi, 6.000 eurotik goiti. Barkaezi-na halako diru zahutzea, noiz eta estutasun ekonomi-koak sos bakoitzari bi aldiz begirarazten gaituelarik. Senatuaren erregelamenduan aurreikusitakoa baino gertatu ez bazen ere, hedabide ez gutxik Montillaren hitzaldi eleanitza bitxikeria lotsagarritzat agertu du.



JOSU SANTESTEBAN



Anitzendako hizkuntza *erregionalak*

bertakotasunaren pedigriaren

bitxikeria dira hautua baino;

arrazaren patutik ihes egin ezin

dioten ajeak, hatz hematologikoa

duen ezaugarri kulturala



Izan ere, aniztasuna garestia da, garestiegia batzueendako.


Bertzaldetik, itxuragabekeria: presidentaren gutizia zentzugabea izan da. Dolores de Cospedal PPko idazkari nagusiak esperpentikotzat, zentzugabekeria jasanezintzat jo du Chaves andaluziarrak bere herrikide den Montillari ulertzeko itzulpen-entzungailuak paratu behar izana. Biak andaluziarrak izan-

da, guztion hizkuntzaz egin beharrean, katalana erabiltzera nabarmenkeria hutsez tematu omen zen presidentak. Montilla izan ordez Puigmarí, Capdevila edo Dalmau izan balitz, barkakizun izanen bide zekiokkeen katalanez egitea, baina Andaluzian sortua izanda inola ere ez. Andaluziarra izanda, nahiz eta *Catalun-yako Generalitateko presidentak* izan, Espainiako ministro (andaluziar) bati katalanez egitea berebizikoa zentzugabekeria da.

Oraindik ere anitzek gutxiengo hizkuntzak –estaturik gabe-koak erran nahi dut– etnohizkuntzat hartzen dituzte: talde etnikoari lotuak, bertakoen gauza baino ez balira bezala. Hau da, hizkuntza *erregionalak* bertakotasunaren pedigriaren bitxikeria dira hautua baino; arrazaren patutik ihes egin ezin dioten ajeak, hatz hematologikoa duen ezaugarri kulturala. Hizkuntza komuna izanda, zer ari da andaluziar bat katalanez? ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Koadrilakoek harritu egin naute. Urte dezente badira bertako soziedadera joan gabea nintzena. Txukunduta dute, guk ez bezala ez dute dituen urteek salatzen, itxuran berritua dute. Ate ondoan dituzte jarrita zabor ontziak, kolore ezberdinez bereiziak, begietarako berrikuntza nabarmena. Jan osteko lanetan lehen ez bezalako tertuliak sortzen dira, zabor-gaiek nolako ontzitan behar duten oraindik denek ez baitakite. Gehienak lotzen dira zeregin berrian, inoiz mahaitik mugitzen ez zirenak barne. Adituak ere sortu ditu sistematik, mahai orotik galdezkatuak izaten direnak.

Hernaniko

Gustuz erantzuten dute, horrek beharrezkoa-koak direla sentiarazten ditu. Eta funtziona-tzen du asuntoak. Auzotik, Astigarragatik etorri zaie ziria, eraso izan nahi lukeena, bertako alkateak salatu baitu zenbait hernaniarrek zaborra Astigarragan uzten dutela. Adar-jotzea irudi luke, erraustegiaren eraso dozena bat kilometrora ez bale-go, eta ordezkatzan duen alderdi politikoak atez ate-koaren aurka obsesiboki egingo ez balu. Hobe luke jaun honek bere alderdi barruan begiratuko balu, agian hernaniar kideetan aurkitu baitezake erantzuna, gaurko egunean etxe gehienetan baitago kotxeren bat zabor garraioa ezkutuan egiteko egokieran. ■

BERTSO BERRIAK

Aitor Allaistur

Zuri, zurekin, baina zu gabe



NAGORE LEGARRETA

I

Amets bat den
zirrara
hurbiltzea den
zirrara
sentitzean,
ez ikara,
ez bidea,
ez da traba.
Amets bat ze
amets da ba,
arriskatzen
ez bagara?
Amets bat ze
amets da ba,
loa galtzen
baldin bada?

II

Tamalez hain
aspaldiko
egoera
politiko
antzu bezain
kaotiko
honek denok
gaitu ito.
Pentsatzen dut
nirekiko
joan ote
den betiko...
Pentsatzen dut,
nirekiko
ez ote den
itzuliko...

III

Aste egun
edota jai
egunetan
kezka jarrai
honen erruz
mila ez bai
gure baitan
dauzkagu zai...
Non zauden ez
dut jakin nahi
nahiz eta ez
egon lasai...
Non zauden ez
dut jakin nahi
baina ondo
al zauden bai!

IV

Joan zinen
egunaren
oroitzapen
nahiko garden
bat dut eta
geroaren
esku denok
nola gauden...
Egunero,
egun haren
menpe nola
bizi garen...
Egunero,
egun haren
oroitza zein
gogorra den!


V

Beraz, gauden
egoeran,
une txarren
piztueran,
esperantzak,
ahal den eran,
pizten gaitu
gorabeheran.
Argirik ez
da soberan
nahigabeen
pasaeran...
Argirik ez
da soberan
tunel beltzen
irteeran...

VI

Saminean
aitzindari
den herriko
jendeari
nahiz begira
egon adi,
ez, ez zaio
deus nabari.
Egizu lo,
ameslari,
eta heldu
bizitzari!
Egizu lo,
ameslari,
eta eutsi
ametsari!

DOINUA: "Itsasoa laino dago".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.



Goiko irudian, Nafarroako Unibertsitatean grabatutako LipDuba. 400 lagun ingururekin, orain arte egin den handiena da.

Ikus-entzunezkoak

LipDub, euskararen jostailu

Azken denboraldian Interneten zabaldu den fenomeno berria da LipDub-a, edo kanta batekin egiten den antzezpen kolektiboa. Euskarak biziberritzen jarraitzeko jostailu berriak behar ditu uneoro, eta Eibarren antolatu duten lehen LipDub lehiaketak haize freskoa emango dio.

LANDER MUÑAGORRI

HARTU BIDEOKAMERA, bildu lagun taldea, eta aukeratu kanta. Kalea, unibertsitatea edo lan-tokia antzeztoki apartak izan daitezke. Egin beharreko antzezpena ongi planifikatu grabatzen hasi aurretik, etendurarik gabe egingo baita dena. Hitz gutxitan esateko, abesti bate-

kin ongi pasatzeko koreografia jendetsua egitea, horixe da LipDub bat.

Jatorria AEBetan dauka Internet bidez hedatu den fenomenoak. 2006an agertu zen lehenbizikoz LipDub terminoa sarean —ezpain bikoizketa esan nahi du—, eta orduz



Goiko argazkietan, Eibarko LipDub lehiaketan parte hartuko duen talde batek egindako grabaketa ageri da. Etendurarik gabe, plano bakarrean grabatzen dira mota honetako bideoak, eta horregatik, parte hartzen dutenek ondo ikasi behar dute koreografia, huts eginez gero zerotik hasi behar baita. Youtube bezalako webguneetan mundu osoko LipDubak aurki daitezke. Laster, Eibarko eta Deba Goienean antolatu asmo duten lehiaketei esker, euskaraz egindakoak ere ikusgai izango dira.

Hastapenetan unibertsitateko ikasleek egiten zituzten LipDubak, euren fakultateetan zeinen ongi pasatzen zuten erakusteko. Orain fenomenoaren enpresetara ere hedatu da, marketinerako tresna gisa

geroztik asko hedatu da. Hala ere, fenomenoak azken hilabeteetan izan du zabalkunderik handiena. Hastapenetan unibertsitateko ikasleek egiten zituzten LipDubak, euren fakultateetan zeinen ongi pasatzen zuten erakusteko. Mundu guztiko unibertsitate askok daukate euren fakultateetan grabatutako LipDuben bat, baita Nafarroako Unibertsitateak ere. Wikipediak eskaintzen dituen datuen arabera, Iruñean grabatutako LipDubak da gainera jende gehien biltzeagatik errekorra daukana, 400 pertsona inguru. Ikasleen ekimenetik sortutako fenomenoaren izanda, Internet bidez unibertsitatea saltzeko balio izan du. Orain fenomeno hori enpresetara ere hedatu da, marketinerako tresna bihurtu baita LipDubak. Baina lan artistiko bezala har daitezkeen heinean, lehiaketak ere sortu dira.

Eibar, aitzindari

Euskara lasterketa honetara berandu ez iristea, eta ahal bada aurrea hartzea da Eibarren antolatu berri duten lehen LipDub lehiaketaren helburua. Hemen oraindik erabat zabaldu gabe dagoen fenomenoaren da, eta “aukera polita da oraindik hemen erdal kantekin apenas egiten denari aitzindaritza hartzea”, dio Josu Mendikute Eibar.org-ko partaidea eta lehiaketaren antolatzaileak.

Euskal kantak eta euskara bera Interneten zabaltzeko erreminta izan daitezke lehiaketa. Baina hori baino garrantzitsuagoa da jendeak euskararekin gozatzea eta ongi pasatzea. Aurretik ere LipDub batean parte hartutakoa da Mendikute, eta esperientzia haren oroitzapen polita dauka. “Nolabaiteko tentsioa daukazu zure gain, eszenifikazioan zerbait txarto egiten baduzu grabazioak berriz hasi behar baitu”. Ikus-entzunezko bestelako lanetan errealizazioan aldaketak egin daitezkeen bezala, LipDubean puntu guztiek ondo definituta egon behar dute hasieratik.

Lehiaketa antolatzeko ekimena Eibarko Udalak hartu zuen, Junkal Txurruka euskara teknikariak Donostian egindako LipDub bat ikusi zuenean. Citröenek antolatutako lehiaketa baterako grabatu zuten bideoa Euskal Herri guztitik etorritako hainbat gaztek. Tartean zegoen Josu Mendikute ere. Gaztelaniazko kanta batekin egindako lana zen, eta Txurrukak hura ikustean, halako ezer euskaraz eginda ote zegoen galdetu zuen. “Internet ez dugu halako ezer euskaraz topatu” ziurtatu du Mendikutek. Horrela hasi ziren euskal kantagintzarekin egindako LipDubak bultzatzeko ekimenarekin.

Saria Eibarko merkatariek jarriko dute: dendetan gastatzeko 5.000 euro eta beste 1.000 euro eskudirutan. “Guk merkatariei Eibar Euskal Herrian Internet bidez erakustea eskaini genien”, oinarrietako bat Eibarren grabatutako bideoa izatea baita. LipDubak marketinarekin duen harreman estua mantenduko du, beraz, lehiaketan. Kasu honetan, marketinerako produktuak euskara eta Eibarko kaleak izango dira.

Ikusleen partaidetza

Lipduba web 2.0-aren ondorengoa den aldeitik, lehiaketaren epaian jendearen parte-har-



tzeak ere zerikusi handia izango du. “Jendeak irabazlea aukeratzea nahi dugu, nahiz eta epaimahai bat ere egongo den”. Bideoak Youtuben eskegiko dira, eta une horretatik bertatik jendeak bozka emateko aukera edukiko du. Finalera hiru bideo iritsiko dira, eta jendeak aukeratuko ditu. Ekitaldi jendetsu batekin amaituko da lehiaketa –hala espero dute behintzat antolatzaileek–, Eibarko Coliseo antzokian. Beraz, sortzez sareko ekimena baldin bada ere, LipDuba plazara, kalera, jendartera ekarriko dute Eibarren.

Urrian egingo den finalera bertaratu den jendeak garailea aukeratu ahal izango du, epaimahaiarekin batera, %50ean. Lanaren kalitate artistikoa kontuan hartzeaz gain, bideo hori ezagutarazteko euskararen erabilera eta herria nola erakusten duen ere aintzat hartuko da.

Apaltasunean, eraginkor

Euskara sustatzeko ez da dirutzarik gastatu behar, baliabide gutxiarekin eta irudimenarekin aurrerapauso handiagoak eman daitezkeela iruditzen zaio Josu Mendikuteri. Hainbat erakundek egiten dituzten kanpainak baino baliagarriagoak dira era honetako ekimenak, jendeak hizkuntzarekin jolastu, entretenitu eta gozatu beharra baitauka. Hala ere, antolatzaileari hurrengo urtean bigarren edizioa egongo ote den galdetuta, ez du ezer

ziurtatu. “Bigarren edizioaren bat egotea baino garrantzitsuagoa da euskara halako fenomeno berrietara garaiz heltzea eta ideia freskoak edukitzea”.

Orain artekoan, Eibarko LipDub lehiaketak erantzun ona izan du.

Bost taldek eman dute izena oraingoz eta dagoeneko hiruk grabatu dute. Segida izango du gainera ekimenak, Deba Goienean antzeko lehiaketa prestatzen ari baitira

Orain artekoan, lehiaketak erantzun ona izan du. Bost parte-hartzailek eman dute izena oraingoz –uztailaren 19a izango da lanak aurkezteko azken eguna–, eta dagoeneko hiru LipDub grabatu dira. Gainera, ekimenak Euskal Herriko beste leku batzuetan ere jarraipenik izango duela dirudi, Goienak beste hainbeste egiteko asmoa baitauka Deba Goienean, hamargarren urteurrena ospatzeko. Dantza, euskal kantak, bideoa eta teknologia berriak uztartuz, zeresana eta zer ikusia izango da aurrerantzean ere. ■



Literatura

Bordari, hitzen ibilbidea

Ehun urte dira Fernando Artola Sagarzazu, *Bordari*, Hondarribian jaio zela. Olerkigintzari, bertsolaritzari, euskarari emana, sorterritik hain hurbil zuen mugaren zatiketa gainditzeko eginahalez josita ageri zaigu haren bizitza.

OIER GUILLAN

HONDARRIBIARI ESTUKI LOTURIKO pertsona izan zen Bordari. Hondarribiari eta euskarari, euskal kulturari. Nola idazten da herri bat bizi izan dutenen historia? Nola bildu herri baten kaleak egunez egun zeharkatu, bizi, izendatu, arnastu dituztenen uneak, egunak, lerroak? Munduko pertsona bakoitzaren biografia egitea justizia poetikoa egiteko modu ederra litzateke, chunka eta milaka liburuk osatuko lukete Hondarribia bezalako herri baten liburutegia.

Bildu gara Fernando Artola Bordariren arrastoan, bere jaiotzetik ehun urte igaro diren honetan, eta erabateko justizia poetikoa ezinezkoa bada ere topatu ditugu beste garai batzuen oihartzunak nonahi: ugariak dira Bordarik herriko jendearengan utzitako aztarnak, margoak, poemak, eta haiek guztiek zeharbideen sarea osatzen dute, pertsona baten arnasara itzultzeko. Arrasto bakan batzuk baino ez dira lerro hauetan bildu ditugunak.

Abiatu gara alde zaharrear barrena, arrasto berri batetik bidali dugu begirada atzera: Gipuzkoa plaza eta Satarka kalea pasata behera egin eta bada Bordariri eskainitako kale bat, bere jaiotetxetik hurbil dagoena. Batzuetan pertsona baten izena kale bati ematea izan daiteke hura nahi gabe, oharkabea, ahazteko modu bat. Jendeak arraro begiratu gaitu kalearen izenari argazkiak ateratzen hastean. Kale Nagusian ere bada haren jaiotza gogora ekartzen duen plaka bat. Baina nor zen Bordari?, galdetuko diote turistek agian beren buruari.

Bertsogintza, olerkigintza... euskarari lotzen ahal zaizkion hitzak eta kultur ekintzak aurkituko dituzu franko Bordari ezizenaren arrastoan. Bere garaiari zor zaion pertsona izan zen Fernando Artola. Aita parrokiako buru izanik, elizarekin harreman estua izan zuen bizi osoan, gerra aurrean EAJn milita-

tzeari ekin zion eta gerrarekin batera iparraldean hartu zuen babes. Garai hartan ezagutu zuen Henriette Cornu, maitemindu eta ipar-hego, hainbat euskal herritarri gertatu moduan gerrek baldintzatu zieten bizitza.

Mapek inposatutako muga nabarmena da Hondarribian. Arma plazatik begiratu eta han bertan dago Hendaia, hurkoan. Guda batek zauri bilakatzen ahal ditu mapetako marraz, paperean baino jendearen azalean orbaintzen diren lerroak. Halaxe, Henriettek eta Fernandok urteak eman zituzten Hondarribian elkarrekin bizitzen hasi ahal izan ziren arte, Hegoaldeko gerraren ondorio lazarriez gain naziak Iparraldean okupatua zuteneko garaia ere bizi baitzuten. San Pedro kalean jarria zuten lehen urteetan habia. Gerrak joan ziren baina ez osteak, eta puska luze batean Artolak aliatuentzat egin zuen lan klandestinitatean, EAJk orduan nazien guda-galtzeak Francoren eragina izatea espero baitzuen. Garai hura ere pasa zen eta diktaduraren presio eta mehatxupean, Bordari ezizenarekin Fernando Artola kultur ekintzailea jaio eta bilakatu zen.

Ezizena eta izana

Fernando Artolak garaiko aldizkari eta egunkari ugarietan idatzi zituen testuak, hainbat ezizen erabiliaz. Bordari egin zen bereziki ezagun. Artikulu bidean literatura gero eta presenteago egongo zen haren jardunean pasa den mendeko 50eko hamarkadan.

Bordarik etengabeko lanari heldu zion, urteen segidan atal ugari izango zituen: garaiko euskal idazle esanguratsuenak ezagutu zituen, ipar-hego harremanak eta zubiak eraikitzen jardun zen beti; Hondarribian bertan idazten jarduten zirenen lotura izan zen sarri, testuak konpartituz, elkarri irakurritz eta kulturari buruz gogoeta eginez. Santa Maria atearen aldameneko gaztelu gisakoan babestu



OIER GUILLAN



HONDARRIBIKO LIBURUTEGIAK UTZIAK

izan ziren, kasu, Klaudio Sagarzazu *Satarka*, Xabier Aranburu eta Rafael Artolaren hitzak, azken honen etxea izanik.

Bertsogintzan ere halatsu. Garaiko bertsolari askoren lagun izan zen, eta bertsolaritzari bultzada erabakigarria eman ziotenen artekoa. Bordariri zor zaio *kartzelako* modalitatearen ideia, besteak beste.

Herriak arnastu dituztenen hatsa suma daiteke nabarmen gerokoentzat utzi dituzten testuetan, eta Bordariren kasuan ere badago zeri heldu: garaiko Hondarribiaren lekukotza jaso zuen *Olaxti* bilduma, hala hainbeste maite zuen Hondarribiko euskararen bidetik nola edukietatik, urte gutxian desagertzen edo behintzat lausotzen joan den arrantza munduaren eta jendearen berri eman baitzuen. Tartean utzi zituen osteria bilduta argitaratu izan diren hitzaldiak, saiakera laburrak, ipuinak... eta Henrietteren herio-

Goian, Fernando Artola *Bordari*-ri eskainitako kalea, Hondarribiko alde zaharrean. Eskuinean, Bordariren argazki bi. Behekoan, Lazkao Txikirekin ageri da *kartzelako* modalitatea asmatu zuen hondarribitar bertsozalea.

tzaren ostetik 1968an argitaratutako *Goraintzi* ere bai.

Historia liburuek herrien memoria oroitzen dute agian, baina ez pertsonena. Herri bateko kaleek ezin dituzte haien karraketan esan direnak errepikatu, ikusi direnak erkatu. Baina poesiak agian bai, Bordari bezalako pertsonen lanak lagun dezake Hondarribiko jendearen bizimodua, kezak eta oroitzapenak behin eta berriz islatzen. ■




Liburuak

KRITIKA

Aurpegiko ubeldurak.
Antton Kazabon.
Elkar.
46 orrialde. 7 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Gazte (para)literatura tratu txarrei buruz

HASIERA-HASIERATIK igar dezake irakurleak liburu honen gaia. Paratestuak oso argiak dira, izenburuak iradokitzen duenaz gain Unai Aranaren azalak tratu txarren inguruko ideia azaltzen baitu.

Kazabon dugu, eta horrela aipatu izan dugu besteetan ere, euskal haur eta gazte literaturan esperimintatzeko joera handiena duen idazlea. Estilo aldetik, nola kontatu argumentua, narrazioarearen ikuspegia, errekurso ezberdinak erabiltzeko joera... baita ere gai aldetik ere. Oraingoan, aurretik aipatu bezala, tratu txarren edo genero bortizkeriaren inguruko obra eskaintzen digu idazle ezagunak.

“Egunetik egunera hobeto dago ama. Lehenengo bisitak oso gogorrak izan ziren, baina azken aldian nahiko ongi ikusten dut. Aurpegiz itxura hobea eta hizketan ere zentzuz eta argi”. Horrela hasten da nobela, eta irakurleak ikusi bezala protagonista nagusiaren alaba dugu narratzailea. Enara, hamazortzi urteko neska, dugu narratzailea eta amari jazotakoa kontatuko digu apur-apurka, baina baita etxean anaia gaztearekin bizi behar duen egoera gogorra ere. Izan ere, ama ospitalean dago aitak emaniko jipoiaren ondoren, baina hasieratik iradokitzen den bezala, borroka horretan amak aita hil egiten du eta azken gertakari hori ez du onartu nahi Enararen anaia. “Zergatik geratu gara aitarik gabe?” galdetuko du Lukax gazteak, “haserretzean denok hasten gara sesioan, neska. Eta aita ere tarteka haserretzea normala izango zen”.

Argumentuaren korapiloan, bestalde, gizonetako bi gehiago ageri dira, Enararen mutil laguna, laguntzeko prest ageri dena, eta Erramun, aspaldiko ezagun bat eta orain Enararen amarekin harremana hasi nahi duena. Horrek guztiak sentimendu, jarrera eta jokabide ezberdinen aukera azaltzen du, baina protagonisten artean eboluzio txikiarekin; hots, protagonistak nahiko lauak dira.

Alde horretatik onartu egin behar da honelako gai baten inguruan nobela bat egiteko apustua, horrelako egoeren ikuspegi eta jokabide ezberdinek sortaraz dezaketelarik elkarrizketa eta eztabaia; baina, era berean, horrek berak testuaren irakurketa nahiko sinplea bultzatzen duela esango nuke.

Duela gutxi Iban Zalduak “gazte literaturaren aurka” idazten zuen, gazteentzat apropos eginiko liburuak kalte egin diezaioketela literaturari eta horien ordez literatura klasikoak errebindikatzen ditu gazteentzat, “agian ez du liburua osoro ulertuko (...) baina literatura benetan zer den asmatzen hasiko litzateke”. Kazabonen lan honek gaiaren aldetik apustu eta esfortzua eskatu duen bezala, ez dut uste literatura aldetik, istorioaren eta protagonisten garapenean asmatzen duenik. ■

‘Jakin’-ek zenbaki bikoitza

Urteko bigarren zenbakia kaleratu du *Jakin*-ek, eta aldizkari bikoitza da. Aukeratu duten gai nagusiak hala eskatzen zuen, garapen iraunkorraz eta gizarte erantzukizunaz jardun baitute hainbat adituk. 1970eko hamarkadan hasi zen gaiari buruzko diskurtsoa finkatzen, eta joan den mendeko azken hamarkadan enpresa mundura


heldu zen, gizarte erantzukizunaren kontzeptuaren bidez. Horietaz jardun dute, besteak beste, Eguzki Urteagak, Ignazio Aiestaranek, Miren Onaindiak, Olga Fotinopoulouk, Silvio Funtowiczek eta Roger Strandek. Gainera, *Gaiak* atalean Idurre Alonsok euskal literaturaren irakaskuntzaren gaur egungo erronkak aztertu ditu. ■



Jakin 177-178.
Batzuen artean.
Jakin.
188 orrialde.
11,40 euro.

Hizkuntza eta literatura gaiak ‘Oihenart’-en

Eusko Ikaskuntzak hitzkuntza eta literatura gaiak jorratzen ditu *Oihenart* izeneko aldizkari mardulean. 24. zenbakia esku artean, besteak beste honako gaiak aurkituko ditu irakurleak: Eibarko aditzaren berezitasunez Nerea Aretak idatzitako artikulua; Asier Barandiaranek XX. mende hasierako bertsolarien argudiaketaz eskribiturikoa; Ahinitz Gerrikagoitiaren artikulua Sarrionandiaren eta Méndez Ferrínen antzekotasunez; Julen Manterolak euskal artikuluei buruz idatzitakoa, euskalkietan eta euskal autoreetan arreta berezia jarrita. Badi-ra gaztelaniaz idatzitako zenbait artikulua ere, hala nola, Josu M. Zulaikak Edward Lhuyden obran euskarak duen presentziari buruz. ■



Oihenart 24.
Batzuen artean.
Eusko Ikaskuntza.
339 orrialde.
10,45 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Iheskide.
Iheskide.
MusikHerria.
Iraupena: 34'46".
5 euro.

Punk-rock errebeldea esaten diote

ELORRIOKO Ihesbide taldeak ibilbidea eten behar izan zuen taldeko baxu jotzailea atxilotu eta espetxeratu zutelako. Handik denbora batera, baina, bueltan ditugu izenean aldaketa txiki bat eginda eta kide berrien laguntzarekin elkartasuna erakutsi eta abestiak boro-bilduta. Euskaraz abestutako zazpi pieza eta Cock Sparrer-en bertsio bat batu dituzte; eta diskoa hasi ahala punk-Oi!-a egiten dutela dirudien arren, askotariko doinuak jorratu dituzte, punk-

rock errebeldea etiketapean. Hala, Oi!-ak eta 77ko punkak pisua badute ere (NCCk burua altxatuko balu!), Eskandinaviako gitarra punk-rock hard-rockeroak erraz aurki daitezke, baita sasoi bateko MCDren antzeko rock-and-rolla eta -zergatik ez!- baita balada folky bat ere. Ondo borobildutako abestiak dira, mimoz eginak eta mezu zuzen-zuzenean. Motza egin zait!

www.myspace.com/ihes2de

Iheskide

«Mezua da lehenbizikoa eta musika mezu hori anplifikatzeko eta hornitzeko tresna»

Gaizka gabe, izena aldatu eta argi zenuten jarraitu behar zenutela?

Ez pentsa. Gaizka espetxeratu zutenean, taldea blokeo egoeran geratu zen. Baina azkenean jendeak, lagunak, senideek eta Gaizkak berak gehienbat emandako animoek ikusarazi ziguten taldea gertzea gure herriak jasaten duen zapalkuntzaren beste garaipen bat izango zela. Hortaz, Ihesbide Iheskidegatik ordezkatu, eta lan hau prestatzen hasi ginen.

Zaila izan da iheskideen disko hau egitea?

Ez, uste baino errazagoa izan da jaso dugun laguntasun guztiari esker. Abestiak aurretik idatzi genituen eta kolaborazio asko izan arren (Edan-eko Endi eta Mikel, Kañeria 13-ko Ulli, Kop-eko Juanra...), guztiak oso erraz joan dira. Hor ere



meritu handia izan du Ander "Shinova" teknikariak malgutasun handia eman digulako.

"Amestutako gune batetik amesten dugun herrira". Gaztetxe askorekin, posible da gaur egungo gizartea iraultzea?

Noski posible dela. Badago esaera bat: "Amuarrainak begi bi, sei ezka-luk hamabi". Guztiok apur bat eman ezkerro, bakoitzak bere ingurune naturalean eta indarrak batuta edo-zer egin daiteke. Gaztetxeek Euskal

Herrian indar handia daukate, usteldutako sistemari alternatiba eskaintzen diotelako.

Durangaldearen eta Arrasate-ren artean egonda, saihestezina da Oi! ukitua izatea? Iraganean markatu zintuzten Oi!-ak?

Egia da punk-Oi! deritzona asko entzun dugula, baina beste mota askotako musika ere bai. Hala ere, 80ko eta 90eko hamarkadetakoa Euskal

Herriko punk taldeek eman digute inspirazio handiena.

Zuentzat zer da garrantzitsuagoa mezua ala musika bera?

Mezua da lehenbizikoa eta musika mezu hori anplifikatzeko eta hornitzeko tresna. Guk ez daukagu gure burua musikaritzat, musikaren laguntzat baizik. Musika egin eta jotzen dugu, eta Euskal Herriak jasaten duen zapalkuntza egoera gordin eta krudela sufritzen dugun gazteak gara. ■

Ezpalak

JON TORNER

‘Egunkaria, amets baten egia’ liburua kalean da

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (EHU) Informazio Zientzietako zenbait irakasle eta irakasle ohiren iritzi artikuluekin osatutako *Egunkaria. Amets baten egia* liburua argitaratu du Tartalok. Txema Ramirez de la Pisciñak, Teresa Agirrezabaldegik, Pedro Ibarrek eta Ramon Zalok parte hartu dute lan horretan. “Hama-bi urtez egia bihurturik hain ederki funtzionatu zuen proiektuaren ametsaren” inguruko gogoetak bildu dituzte. Aurrera begira beste liburu bat argitaratzeko asmoa adierazi dute egileek, *Egunkariaren* epaiketari helduko diona.

Chillida Lantoki irekiko dute Legazpin

LENBUR fundazioaren eta Chillida familiaren eskutik Chillida Lantoki gunea irekiko dute Legazpiko (Gipuzkoa) Patricio Elorza S.A. paper lantoki zaharrean, hila-ren 21ean. Gune horretan ez dira Chillidaren obrak erakutsiko, baizik eta “horiek egiteko inguratu zuen guztia”, dio Ignacio Chillidak, Eduardo Chillida artista zenduaren semeetako batek. Oraingo argazki erraldoiez hornitzen ari dira pabiloia, eta asmoa dute Chillidak bere obrak egiteko erabili zuen makinaria bertan paratzeko. Paper lantoki zaharra erakusketarako egokituia izan da baina antzinako funtzioaren ezaugarriak mantentzen ditu. Etorkizunean erakusketa aretoak, laborategiak, dokumentazio zentroa, bulegoak, dendak eta jatetxea joango lirake leku horretan.

Pello Lizarralde

idazle zumarragarrak 2002an argitaratutako *Larrepetit* eleberriaz mintzatu da ekainaren 12an Hendaiko Mediatekan, VI. Literatur Mintzaldian. Akelarre elkarteak antolatutako hitzaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da.



JOSU SANTESTEBAN

Kerobia taldeak *Ontziak* diskoa kaleratu du, eta webgunean (<http://ontziak.kerobia.com>) zintzilikatu dute, edonork jaisteko moduan. Trilogia baten amaieratzat jo dute eta aurreko bi diskoak ere sarean jarri zituzten bere garaian doan jaisteko. “Trilogiaren ildoari jarraituz, Creative Commons lizentziarekin ateratako diska da eta taldeak SGAEtik kanpo lan egitearen apustuari gogor ekin dio”, adierazi dute. Ezer ordaindu behar ez den arren diskoa jaisteko, donazioa egiteko aukera ere ematen du webguneak.

● **Xabier Santxotena eskultoreak Berrian:** «Museoetan, normalean, piezak baino ez dira egoten, baina ez da ohikoa izaten artista bera ere han egotea. Museoak, beti, artista hiltzen denean egiten dira; ni ez nago horretarako prest. (...) Museo batera joan, eta azalpenik gabe geldituz gero, jendea nahiko hotz gelditzen da. Museoetan maisulanak, Picassorenak, Pollockenak edo dena delakoarenak jarri, eta azalpenik eman ezean, hilobi baten pareko zerbait da erakusketa hori. Azalpenekin beste goxotasun bat du denak».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Gauzen izateaz edo izakarien jatorriaz edo...

De Rerum Natura 3. ZaldiEroa.
Elkar (2010).
350 komiki, 32 koloretan.

“DE RERUM NATURA latinezko poema epikoa da. Hexametro daktilikoa jarraituz idatzita dago, sei liburuk osatzen dute eta fisika epikurearra du ardatz nagusi. Atomismoaren printzipioak azaltzen ditu; buruaren eta arimaren izaera; zentzumena eta pentsaera; munduaren garapena eta haren fenomenoak; zeruko zein lurreko hainbat fenomeno azaltzen ditu ere bai...”. Arraioa eta arranopola!

Hori irakurri ondoren, nire burmuin eskasak aktibatzen mekanismoak jarri ditut martxan: *De Rerum Natura*, erran nahi baita, gauzen izateaz edo izakarien jatorriaz edota izanaren izatasunaz... gogoeta nago.

Izanak izena du: ZaldiEroa. Lehen aldiz entzun nuenean, Neil Youngen *Crazy Horse* banda heldu zitzaidan burura. *Crazy Horse* baina, Sioux tribuko buruzagia izan zen. Ipar Amerikako jatorrizko herria izan ziren Siouxak, europarrak heldu baino lehenago lurralde zabal baten jabe.

Bitxia. Bitxia egin zitzaidan ZaldiEroa –euskal sioux-a alegia– Faltzesen sortua izatea. Patxi Huarte Larra-buru Erriberriko merindadekoa, hara hor. Nafarroako euskal jatorri erabatekoare-

kiko eszeptikoak direnentzat, hara harribitxia.

Harribitxiak ZaldiEroaren komikiak dira baina. *De Rerum Naturaren* hirugarrenean, joan deneko hiru urteetako 350 komiki paratu ditu; 700etatik bitxiak. Lukrezio sei liburuk osatu zuen bere *De Rerum Natura*, ZaldiEroak hiru egin ditu dagoeneko. Badoa aitzina zaldi marrazkigile eroa. *Berrian* ia egunero –sei egunetan, ZaldiEroak igandean atseden hartzen du–, gauza eta izakari suete guztien peripeziak eskaintzen dizkigu.

*De Rerum Natura 3*ko azalean Napoleon Lopez pertsonaia dugu protagonista nagusia. XXI. mendeko erromatar autokrata –autokrata dela ZaldiEroa dixit, enkas diot– La Pelota Basqua menpean hartuta ageri da. La Pelota Basqua bakerako mahaia bihurturik ageri da jeneral berria. Brave Heart amorratuta dago, Gizon Jakintsua saltoka eta M’ongolo etsitua. Gure fauna eta florako gainerako pertsonaiak ere aiduru eta etsituta daude, The Organization-eko “lagunak”

barne. “Amaitu dira arazo identitarioak!” oihu egin du erromatar-hispano-frantses lehendakari *baskista* berriak kontrazalean –eta kontraerasoan–.

Honatz tribuko irrintzi berriaren eleak: “M’ongolook ez dugu etsitzen horregatik. Trostan jarraitzen duen herria ez da inoiz hilko. Lukrezio berria dugu gidari, barka, marrazkilari”.

Milesker ZaldiEroari. ■



**Irudiak eder,
irudimenak plazer**



+XO!
haur bilduma berria

www.txalaparta.com

ANA ZAMBRANO



DANI BLANCO

BARRE- HOTSA PERTSONAIA- REN IZENA		ITZULIA NAFARROAKO HERRIA		OINETAKOEN AZPIKO ALDE			LANDARE- ENBRIOI GIZARTEARI DAGOKIONA		ORDENAGAI- LUAREN GAITZ PERTSONAIA- REN ABIZENA		ITXURA ADIA EGIN	
GOZOKI, KARAMELU UR LOHITSU							ZALDIAREN ILEA EGIAZKOA					
				MUSIKA ESTILO TXIKI, AHUL		MALBA AMURRIKO AUZOA						
KONTSO- NANTEA UGAZABA, NAGUSI		LUMEN MULTZO BEHINTZAT						ZERGA (AL- DERANTZIZ) MORDO, TALDE				
				NEKEZ MEHEA, ESTUA						LETRA IZENA BIZIDUNEN OINARRIZKO ELEMENTU		
ALDARAZI	MODUAK UFA EGINEZ					ISKILU MOTA ELEMENTU KIMIKO						ALAI
								ELIKAGAIEN MULTZOA UDALERRI NAFARRA				
BURDINA MUSEAN JOKATZEKO TXARTELA			GREZIARRA TIK-...- ERLOJUAREN HOTSA						BIZI GAREN PLANETA DU, NIRI			
				SANTU DEZIMETRO							ROENTGEN ABEREAK UXATZEKO	
ZERBAITI KEA DARION ALDI HERREN						GARAIERA, GORPUZKERA TONA						
								GARRAIO- BIDE MOTA				

Kike Amonarrizen umorea

P	A	I				H	B	P
L	O	L	A	T	Z	S	O	I
A	G	O	Z	O			Z	A
L	B	A	S	U	R	Z	I	G
	R	L	U	M	A	D	I	A
	J	A	B	E	A	P	E	N
			E	R	A	K	L	A
	M	U	D	A	R	A	Z	I
	F	E		G	R	E	K	O
	K	A	R	T	A	S	A	I
		K	E	A	L	D	I	T
	H	A	N	K	A	M	O	T
						Z		T
							A	X
								I

Nairobitarra ^{rekin} bidaia jolas

"Nairobitarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

33 €

Harpidedunek:
-15%

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bota dadoa
eta ekin bidaiari.

8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

 argia



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Madagaskarreko arratoiak, izurritearen gordeleku

MADAGASKAR IRLAKO goi-lautadetan bizi diren arratoi beltzak izurritearen gordeleku bilakatu dira. Munduan 2.000 izurrite-kasu inguru gertatzen dira urtero, horietatik 200 edo 300 Madagaskarren.



H. ZELL

Uharteak ia 80 milioi urte darma Afrikako kontinentetik bereizita, isolamenduan, baina gizakiak orain dela askoz gutxiago -1.000 urte- eraman omen zuen arratoi beltza bertara. Lehen epidemia 1898. urtean dokumentatu zen; uste denez, Tamatave kaira heldutako ontzi batek eraman zuen *Yersinia pestis*


bakterioa. Hark berehala infektatu zituen arratoi beltzak, *Rattus rattus* espeziekoak. Arratoi horietako asko hil ziren eta hiltzen dira, baina joan den mendeko 20ko hamarkadaz geroztik arratoi-multzo batek defentsak garatu ditu, eta bakterioaren eramaile bilakatu da.

Madagaskarreko Pasteur Institututuko ikerlari talde batek arestian aipatu arratoiaren azterketa genetikoari ekin dio izurritea hobeto eza-gutu asmoz, ez baita ahaztu behar Afrikan izaten dela munduko izurrite-kasuen %98. Edozein laguntza ongi etorria izango da.

Akupunturaren fisiologia ezagutu nahian

AKUPUNTURA gutxienez 4.000 urte dituen teknika txinatarra dela jakin bada-kigu, baina hortik aurrera askoz gehiago ez. AEBetako Rochester Unibertsitateko ikerlariak, saguekin probak egin eta gero, uste dute adenosina izeneko molekulak oso zerikusi handia duela mina gutxitzearekin. Egindako probetako bat saguen belauneko artikulazioan orratza sartzea izan zen, eta artikulazio horretan adenosina kantitatea ohikoaren 24 halako zela ikusi zuten ikertzaileek.

Aurkikuntza honen ondorioak garrantzitsuak izan daitezke, orratzik erabili gabe adenosina gorputzean sartuz gero, mina txikitzeko aukera egon daiteke eta. Dena den, ikusteke dago saguekin gertatzen dena gizakiarekin ere gertatzen den ala ez.



WWW.ALTBENESTAR.COM

Lurreko laku bat, Marten egon daitekeenaren eredu

Antartikako Don Juan lakua Lurretik kanpoko hainbat ekosistemaren ezaugarriak ulertzeko eredu ona izan daiteke. Lakuaren gazitasuna itsasoarena baino hemezortzi aldiz handiagoa da, eta izoztu ahal izateko -40°C-ko tenperatura behar da.

<http://ttiki.com/13885> (Gaztelaniaz)

Ilargiko kraterrak energi iturri izan daitezke

Eguzki-haizeen eraginez Ilargiko harkaitzak elektrizitatez kargatzen direla jakina da. Ildo berean, pentsa liteke Ilargiko poloetako kraterrak elektrifikatuta egon daitezkeela, eta beraz, astronautentzat leku arriskugarriak izan daitezkeela, aurrez neurriak hartzen ez badira.

<http://ttiki.com/13886> (Gaztelaniaz)

Urtxintxa gorriaren familiarekiko atxikimendua

Amerikako urtxintxa gorriak ez dira taldeetan bizi, baina harrigarria da beren senideak izan daitezkeenak adoptatzeko duten gaitasuna. Galdutako kume bat gene berdinak dituen senideren batek topatzen baldin badu, kume hori zaintzeko probabilitate handia dago.

<http://ttiki.com/13887> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lehenbizikoa

JAIO ETA BIZI NAIZEN HERRIAN historia polita izan duen zeta harrari buruz jarraitzeko asmotan utzi nuen aurreko batean berari buruzko aipamena. Urrutikoen berotan hozten utzi gabe helduko diot gaurkoan. Serikultura da zeta harraren hazkunderari emandako langintza. XIX. mendearen bukaeran, etekin onak emateko moduko langintza zela zabaltzeko ikaragarriko ahalegina egin zuten Espainiako jauntxo batzuk.

Erregeen gonapezaletik beti izan da Gipuzkoan, eta babes hartatik sustatuta zetaren harra bertan hazteko ikerketak egin ziren, Bartzelonako katedralaren bat tarte. Bestetik, Gregorio Lopetedi Lekunberri sekulako ahalegina egin zuen langintza hori gorpuzteko. Txinatik ekarritako zeta harraren hazkuntza hemen egin nahi izan zuen Usurbilgo Urdaigako Iri-sasi mendian, garai hartarako sekulako ola eraikiz. Han haritz hostoz elikatuz hazten zuten zetaren harra. Agidanean, jatorrizko *Morus* generoko marugatzetako hostoz hazitakoarekin adinako emaitzak lortzen zituen. Frantziar barrena ibili ondoren frogatu zuen, nonbait bere zeta haria egiteko egokia zela eta Donostiako Gros auzoan zeta hura hari bihurtzeko lehen ola antolatu zuen; izena ere halakoa jarri zion: "Lenbizikoa". 1880an *Tratado práctico de la cría del gusano de seda del roble* izeneko liburuxka idatzi zuen. Bere lanaren sona ez zen txantxetakoia izango,

izan ere 1882an Burdeoseko azoka ezagunean urrezko domina eman baitzioten.

Haritzetan hazten zituzten zeta har haiek, ordea, arerioa besterik ez zuten. Armarmak zirela, saguak zirela, txindurriak zirela, liztorrak zirela eta batik bat txoriak zirela... ezin atarramentu onik sortu.

Ekin nahi dionarentzat, ordea, hori dira argitaratutakoak eta egun ondare maila duten arrastoak. Baita haritzarekin batera probatzeko ekarri eta landatu eta oraindik bizi diren marugatze aleak ere.

ANTONIOXALONSO-CC BY SA



2,4

Esne kilo bat ekoizteak 2,4 kg CO₂ sortzen du. Jakiak ekoiztea, ongariak, garraioa... esne-behia elikatu eta ekoizpena osatzeko beharrezko diren ekintza guztiak kontuan hartutako emaitza da. Berotegi-efektuaren erantzule nagusi diren gasen %4 esnea sortzeari dagozkio. Ikaragarria dirudi. Horrek esnezaleak ernatu eta gas horiek gutxitzeko zer edo zer asmatzera jarri ditu. Proposamen anabasan bat nabarmentzen ari da: behien jatenetan ezker-aihera ("houblon", "lupulo", *Humulus lupulus*) eranstea. Hausnarketan sortzen den metako kopurua nabarmen murrizten omen du. Hirusta gorriarekin (*Trifolium pratense*) antzeko ikerbide bat jorratzen ari dira.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

VIVEROS
Fadura

**Konifera eta zuhaixken
produkzioa eta lorezaintza**


**Mota guztietako
zuhaitzen salmenta**

Larrañazubi bidea, 15 · 48640 **BERANGO** (Bizkaia)
Tel. 618 86 63 41 - 657 79 08 11

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Roland Garrosetko euskal txapelduna



Jean Borotra
(1898-1994)

1931ko urtarrilean, Berlinen jokaturako tenis txapelketa batean.

"Euskaldun jauzilaria" ezizenaz ezaguna, txapela buruan jokatu ohi zuen.

PARIS, 1925. Ordura arte Frantziako tenis txapelketa nazionala zena zabaltzea eta nazioarteko jokalaria puntakoenak gonbidatzea erabaki zuten. Bestela esanda, Roland Garros sortu zen, izen hura hiru urte geroago estadio berria eraiki arte hartu ez bazuen ere. Lehen Roland Garros hartako finalera René Lacoste –krokodiloa bordatuta duten arropengatik ezaguna, gaur egun– eta Jean Borotra euskalduna (Miarritze, 1898–Arbona, 1994) iritsi ziren.

Indarrak parekatuta egon arren, aurreko urteko emaitzak ikusita Borotra faboritua zen Roland

Garrosetko palmaresa estreinatzeko. 1924an, torneo oraindik nazioartekoa ez zenean, Miarritzeko tenislariak irabazi zuen Frantziako txapelketa, Lacoste bera mendean hartuta. Urte hartako Wimbledoneko finala era biek jokatu zuten eta berriro Borotra izan zen garailea.

Baina 1925eko finala erraz irabazi zuen Lacostek, hiru setetan (7-5, 6-1, 6-4). Txapela jantzita jokatzeko ohitura izan arren, Borotra ez zen orduko hartan txapelduna izan. Eta urte hartako Wimbledoneko finala ere galdu zuen, Lacosteren aurka berriro.

Hurrengo urtean, Borotrak finalaurrekoetan egin zuen topo Lacoste amesgaiztoarekin, eta finaletik kanpo geratu zen. "Euskaldun jauzilaria" –hala esaten zioten, jokoan egiten zituen salto ikusgarriengatik– 1929an lortu zuen berriro finalean sartzea, eta berriz arerio beraren aurka. Partida estua eta borrokatua izan zen, eta Lacostek bost setak agortu behar izan zituen Borotra menperatzeko (6-3, 2-6, 6-0, 2-6, 8-6).

1931n beste aukera bat izan zuen Miarritzekoak txapelketa lortzeko. Baina parean ez zuen René Lacoste izan, Christian Boussus baizik. Eta lehenengo seta galdu arren, hurrengo hirurak jarraian irabazi (2-6, 6-4, 7-5, 6-4) eta, azkenean, Roland Garrosetko txapelduna izatea lortu zuen, buruz buruko torneoari dagokionean behintzat. Gizonezkoen binakako finala lehenago irabazia zuen, 1925eko lehen nazioarteko txapelketa hartan, hain zuzen. Eta ezetz asmatu nor izan zuen bikotekidea: René Lacoste arerio eta laguna.


Arrastoak

Malcolm X-en hiltzailea aske utzi dute

THOMAS HAGAN-EK, Malcolm X hiltzeagatik atxilotutako hiru gizonetatik bere burua atentatuaren egiletzat jo zuen bakarrak, baldintzapeko askatasuna lortu berri du 44 urte eta gero. Malcolm X tiroz hil zuten New Yorken hitzaldi bat ematen ari zela, 1965ean, Nation of Islam taldea utzi

eta urtebetera. Hagan talde horretako kidea zen, eta ihes egiten ahalegindu zenean zauritu eta atxilotu zuten.

Baina Haganen zigorraren amaierak ez du argitu Malcolm X-en hilketa konspirazio baten ondorioa izan ote zen, hiltzaileak beti adierazi baitu ez zuela inoren agindurik jaso, bere kabuz ari zela.





AXIER LOPEZ

Hirigintza

Barrikabaso, ustelkeriaren aurkako borrokarako eredu bat

Lehenbiziko aldiz, epaitegiek balio gabe utzi dute EAEko udal batek egindako lur birsailkapena, lur horren paisaia-balioa dela eta. Barrikan gertatu da, Bizkaiko Uribe Kosta eskualdean. Itxura osoz eraisketa izan behar zen ordurako eraikitako etxeen zoria, baina ekologisten ekimenak oso bestelako jokalekua eraiki du, eta bide batez eskandalu ederra utzi du agerian.

UNAI BREA

HAMAICA URTE igaro dira, baina azkenean epaitegiek arrazoia eman diote Uribe Kostako Txipio Bai talde ekologistari. Iazko uztaillean, Espainiako Auzitegi Gorenak irmotzat jo zuen bost urte lehenago Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEAN) emandako epaia, zeinaren arabera legez kanpokotzat jotzen zen Barrikako Udalak 1998an egindako lur birsailkapena. Ez da birsailkapen bat legez kanpo uzten den lehen aldia, baina bai, EAEn behinik behin, horren arrazoia birsailkatuta-

ko lurzoruen paisaia-balioa dela.

1998an, Bizkaiko Foru Aldundiak behin-betiko onartu zuen Lur Urbanizagarri kalifikazioa ematea Barrikabaso izeneko eremuaren zati bati, bere garaian Eusko Jaurlaritzak babestu beharreko gune izendatu zuen arren, daukan paisaia-balioa-gatik. Barrikako Udalak eta lurraren ugazaba den Lezama-Leguizamon familiak hamarkada bat lehenagotik eginda zeuzkaten planen arabera, 350 etxebizitza inguru egin behar zituzten bertan. Baina Txipio Baik, epaitegietara jotzea zer den ondo

dakien talde ekologistak, helegitea ipini zuen erabakiaren aurka. Hirutan mintzatu dira epaileak, eta hirutan Txipio Bairen alde. Horretarako argudioa, sinplea, Iñaki Ortigosa elkarteko presidentearen ahotik jaso dugu: "Paisaia-balioa badu eremuak, zertan oinarritzen dira esateko orain ez duela? Ezin dira gutizi batengatik sailkapenak aldatu. Orain badago aurrekari bat, eta pozik gaude jurisprudentzia hori sortu dugulako". Baina bitartean urteak igaro dira, eta Barrikabason txaletak eraiki gura zituztenen

hasierako asmoak, bete-betea ez bada ere, gauzatu dira hein batean: hamalau txalet eraiki dituzte, aurreko orrialdeko argazkian ikus daitekeen bezala.

Ekologisten ezusteko proposamena

Epaia irmoa zela jakin zenean, “eraiste” berba hasi zen entzuten han-hemen. Barrikatik, egun argietan, ederto ikusten da Kantabriako kostalde, eta hango oihartzunak ere erraz iritsi ziren Bizkaia aldera. Azken hamasei urteetan, legez kontra eraikitako hogeiren bat auzune eraisteko agindu dute kantabriar epaileek (ikus ARGIA 2.110), eta askok apustu egin zuten patu bera izango zutela Barrikabasoko txaletek. Lehenengo kasua izango zatekeen EAEn. Baina Txipio Baik oso bestelako bidea aukeratu du.

Hamalau txaletak zutik utzi, baina gainerakoa benetan babesteko berme sendoa ipini dadila. Horrela laburbildu daiteke talde ekologistaren proposamena. *Barrikabasoren behin-betiko babeserako plana* izena eman diote, eta hilabeteak eman dituzte alderdi politikoei aurkezten. Momentuz arrakastatsu, nahiz eta eskarietako bat inork ez duen aintzat hartu: bere garaian Barrikabaso birsailkatzearen alde bozkatu zuten zinegotziei —alkatea

barne— kargu publikoak edukitzeko gaitasuna kentzea, eta haiek hartzea beren gain auzi honekiko sortzen diren erantzukizun ekonomikoak. Hori albo batera utzita, Txipio Bairen proposamenak zerbaiteko balio izan du: Udalak eremu osoa urbanizatzeko zeuzkan planak —iazko epaia sektore bati baino ez dagokio— bertan behera utzi ditu, eraiki gabe geratu ziren sailtan egindako azpiegiturak (errepideak,

“Behin eraiki ondoren ez da ezer botatzen, lehengoratzeko hitza oso polita da baina ez da praktikara eramaten”

IÑAKI ORTIGOSA (TXIPIO BAI)

espaloiak, kaleargiak...) kendu egingo dira, inguruari eragiten dioten plan sektorialetan bereziki hartuko da kontuan eremuaren paisaia-balioa, eta Espainiako Kostalde Zuzendaritza Nagusiak onartu egin du babes eremua 200 metrora zabaltzea, lehengo 100en ordean. Zein da horretarako ordainduko den bidesaria? Eraikitako hamalau txaletak antolamendutik kanpo uztea. Bestela esanda, ez dira eraitsiko.

Dagoena salbatzea hobe

Lehentxeago aipatu dugun Kantabriari buruzko erreportajea —2007. urtea zen— Txipio Baik kide batek zioen Barrikabasoko txaletak legez kanpokoak direla berresten zenean, eraitsi egin beharko zituztela. Baina azkenean, elkarteak berak egin dio uko bide horri. “Esperientziak diosku behin eraiki ondoren ez dela ezer botatzen”, azaldu digu Iñaki Ortigosak, “*lehengoratzeko* hitza oso polita da baina praktikan ez da ia inoiz gauzatzen”. Kantabriako adibideari berriz begiratzea besterik ez dago: urteak joan urteak etorri, eraitsi beharreko etxe guztiek zutik diraude, haiek botatzea agintzen duten epaiak bezain irmo.

Hori ikusita, eta Barrikabasori egindako kaltea izan zitekeen bezain handia ez dela kontuan izanda, oraindik salbatzeko dagoena —gehiena— salbatu nahiago izan du Txipio Baik. “Legea benetan zorroztasunez beteko balitz, askoz aukera errealistagoa izango zen eraistea eskatzea, baina gauden-gaudenean arriskua geneukan horretan indarrak xahutzen hamar urte eman eta gero, hamalau txalet hauek ez ezik, beste ehunka batzuk edukitzeko Barrikabason. Gure hautua, azkenean, zera izan da: eraisketaren alde ez borrokatzearen truke, babes eraginkorra eskatzea erakundeei”.

Arrisku bat eduki dezake Txipio Baik hartutako bideak. Kantabriar eraisketaren alde lan franko egin duen ARCA talde ekologistak aipatu zigun duela hiru urte, eta espainiar fiskalen bati ere entzun izan diogu antzeko adierazpenik: eraikitakoa onartzea, azken batean, legez kanpo eraikitzeko “gonbidapena” da. Lehenbizi triskantza egin, eta gero geroakoak. Nolanahi, horren aurka borrokatzeak, borrokatu izan den lekuetan, ez du emaitza onik ekarri.

Argazkian, Barrikako Udaletxea. Barrikabaso babesteko ekologistek proposatutako zenbait neurri onartu dituzte osoko bilkuran, alkatetza duen EAJk aurka bozkatu arren.



Uribe-Kosta-Butroe biotopo babestu izendatzeko eskatu dute

Maiatzaren 20an emandako prentsaurrekoan, bederatzi talde ekologistek, tartean Txipio Baik, Uribe-Kostako itsasertza, hala nola Butroe ibaiaren estuarioa, biotopo babestu izendatu ditzatela eskatu zuten, “inguruak presio demografikoagatik jasaten duen mehatxuari aurre egiteko”. Butroeren estuarioa, hain zuzen, ingurumen-kalitate bereziko delako azpimarratu zuten, hainbat ikerketaren emaitzek erakusten duenez. “Txingudiko badiaren pareko balioa dauka, eta Euskal Herrian Urdaibai

baino ez litzateke egongo haren gainetik”, adierazi zuten ekologistek. Gaineratu zutenenez, Bizkaiko Foru Aldundiari eta balizko biotopoan lurak dauzkaten bost udalei eskatu-

ko diete proposamenarekin bat egitea. Izendapena, egitekotan, Eusko Jaurlaritzaren esku dago.

Gorlizko badia, Barrikatik ikusita.

ARTBERRI-CC BY SA



Etxe-jabeak, errugabeak?

Aldiz, abantaila nabarmena dauka Txipio Bairen hautuak: *biktimaren* figurari indarra kentzen dio. Legez kanpoko etxeetan bizi den jendeaz ari gara noski. Kantabrian —berriaz ere ispilu horretan begiratzea beste irtenbiderik ez baitaukagu— sekulako indarra hartu dute AMA elkarteak bildutako etxe-jabeek. 1.000 familia inguru. Horrek barregarri uzten ditu Barrikako hamalauak, zer esanik ez. Baina gutxi edo asko, udal agintariak saiatu dira haiek erabiltzen ekologistek aurka, “xantaia modura”, Iñaki Ortigosaren berbetan.

Barrikabason bizi direnek, iazko uztailera epaia ezagututakoan, berehala kontratatu zuten abokatu bat, eraisketa mehatxuaren beldurrez. Euren etxeak botako ez dituztela jakin dutenetik, ordea, ez dute zalaparta handirik sortu.

Txipio Baik Barrikabasorako babes-plana aurkeztu zuenean, iazko

udazkenean, beren txaleta “fedeez” erosi zuten Barrikabasoko biztanleentzat zegozkien kalte-ordainak eskatu zituen. Fede onarena azpimarratu zuten, ordurako jakin baitzekiten auzokideetako batzuek, etxea erosi zutenean, bazutela Barrikabasoren birsailkapenaren kontrako helegitearen berri. Baina hara non ezusteko ederra hartu duten ekologistek. Izan ere, Txipio Bairen ustez, oso litekeena da hamalau jabeek hasieratik jakin izana Barrikabasoren birsailkapena epaitegietara eramana zela. Ekologistek helarazi digute hamalau etxe horien lizentziei buruz Udaletxeak —epeaz kanpo eta salaketa mehatxubaten ostean— eman dien informazioa; hor ikus daiteke, beste irregularitasun batzuen artean, Barrikabasoko hamalau familietatik bakarrak duela eskatuta derrigorrezko lehen erabilerrako lizentzia, eta hark ere iazko uztailera eskatu zuela, Auzitegi Gorenaren epaia ezagutu ostean.

Gurekin ez du hitz egin nahi izan, baina Juan Jose Ezpeletak, Barrikako alkateak, hamalau familia horiek babestu beharra aldarrikatu du hainbat hedabidetan. Haatik, Iñaki Ortigosaren ustez Udalak berak jarri ditu familia horiek dauden atakan, bertan bizi direnetik ez baitie bizigarritasun-zedularik eskatu, ez eta zergarik ordainarazi ere. “Linbo batean eduki dituzte, bazekitelako azkenean epailek legez kanpo utziko zutela birsailkapena”.

Biktima, azkenean, ingurumena da. Barrikako epaia kasu bakana da, Txipio Bairen salaketa kasu bakana izan den bezala, baina Barrikabasoko eskandalua Euskal Herrian salbuespena dela uste duenak, bota dezala lehen harria. Harritz harri egiten baitira txaletak. ■

argia.com

Iñaki Ortigosari Barrikan egindako elkarrizketaren bideoa duzue ikusgai.



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

Tobin tasa

Urtean 700.000 milioi euro aurrezteko mundu zerga

Mundu osoko krisi ekonomiko finantzario larriak alarma joarazi du eta gero eta gehiago dira Tobin tasa ezartzearen aldeko ahotsak. Tobin tasa munduko kapitalen fluxuaren gaineko zerga da eta, ezarritu gero, urtean 700.000 milioi euro inguru bilduko lirateke planetaren behar larrienei erantzuteko. Hil honen bukaeran Kanadan bilduko den G-20ak gai hori landuko du.

DANIEL UDALAITZ



Ezkerrean: Tobin tasaren inguruko ingelesezko afixa; askok zerga hori “Robin Hood tasa” deitzen diote. Eskuinean: G-20ak Pittsburgh-en 2009an egindako bilera; hil honetan Kanadan bilduko dira eta Tobin tasaz ere hitz egingo dute.

NAZIOARTEKO TRANSAKZIO finantzarioetan zerga bat sartzea, hau da, Tobin tasa deritzona ezartzea, ezker erradikalenaren, globalizazio kapitalistaren aurkako taldeen kontua zen duela urte gutxi arte. Proposamena erradikaltzat jotzen zen eta aldekoak, iraultzailetzat. Ondorioz, munduko gobernuetako jardunetatik urrun zeudenen utopiaztat zuten. Baina munduko azken krisialdiak gauza asko aldatu ditu, nazioarteko arkitektura finantzario berri bat barne, egonkorragoa eta aurreikusten errazagoa. Horrenbestez, Kanadan ekainean burutu-

ko den munduko G-20 gailurrak gaia jorratzea aurreikusten du. Baina askok susmoa du gaia funtsik gabe eta baztertuta utziko dutela, paradisu fiskalak desagerrarazteko konpromisoarekin egin duten moduan.

Mundu osoko ekonomialariak, Jeffrey Sachs-ek esaterako, G-20ari zuzendutako gutun bat sinatu dute, transakzio finantzarioen gaineko zerga sortzearen alde. Murrikaz, zerga hori “Robin Hood tasa” esaten diote, pobreei laguntzeko aberatsei lapurtzen zien Sherwoodeko basoko bidelapurra gogoan.

Zer da?

Tobin tasa munduko kapitalen fluxuaren gaineko balizko zerga da eta James Tobin ekonomialariak, 1981ean Ekonomiako Nobel saria jaso zuenak, eman zuen aditzera 1971n. ATTAC mugimenduak proposatu eta bultzatu zuen zerga ezartzea. Dibisen arteko truke eragiketa bakoitzeko zerga ordaintzean datza, moneta batetik bestera pasatzea geldiarazteko eta, Tobinen arabera, nazioarteko moneta eta finantza merkatuen “engranaje koipeztatuegietan area botatzeko”. Tasak baxua behar zuen izan, %0,1 ingurukoa,

Nork kontrolatuko luke tasaren bilketa eta banaketa?

Galdera hau ez da berriketa, are gutxiago munduko ustelkeriaren gaitzaren jakitun garenean. Horrez gain, aintzat hartu behar da egun Tobin tasaren alde dauden zenbait eragilek, Davoseko Foroak, esaterako, uste dutela dirua zailtasunak dituzten bankuak erreskatatzeko erabili beharko litzatekeela. Globalizazio kapitalistaren aurkako mugimenduek zerga horrek sortuko lituzkeen diru-sarrerak munduko pobrezia aurre egiteko finantzazio iturri garrantzitsua izango liratekeela deritzote. Sektore liberalek neurri interbentzionista bereziki kaltegarritzat jo dute merkataritza librea oztopatzen

duelako. Hala, herrialde pobreenen aurka ari dira eta funtsak biltzeko, kudeatzeko eta erabiltzeko zailtasun handiak ipintzen dituzte.

Horregatik, funtsezkoa da zerga biltzeaz eta, ondoren, bildutakoa banatzeaz nazioarteko zer erakunde arduratuko den zehaztea. Oraindik erantzunik ez duen giltzarria da. Globalizazioaren aurkako mugimenduek NDF eta MB baztertu dituzte zeregin horretarako, kapitalismo basatienaren ordezkari baitituzte. Beraz, Tobin tasa biltzea nahiz ondoren banatzea nazioarteko zein erakundek bermatuko luketen aztertu beharko da.

moneten arteko epe oso laburreko joan-etorriko eragiketa espekulatiiboak zigortzeko, inbertsioei eragin gabe. Gaur egun, Tobin tasa ez litzateke soilik dibisen arteko eragiketetan ezarriko, nazioarteko transakzio finantzario guztietan baizik.

Nazioartean egindako zenbait kalkuluren arabera, Tobin tasaren bidez bildutako kopurua munduko BPGren %0,6 eta %1 artean legoke. Horixe dio Jesús Lizcano Madrilgo Unibertsitate Autonomoko katedradun eta Transparencia Internacional España erakundeko presidentek, *El País* egunkarian argitaratutako artikulu batean (2010eko otsailaren 14an). Zenbateko absolutuetan, bildutako kopurua urteko 300.000 eta 700.000 milioi euro artean legoke, beti ere Lizcanoren esanetan; %0,05eko ala %0,1eko tipoa ezartzearen arabera, eta soilik dibisen eragiketetan ala finantza eragiketa guztietan ezartzearen baitan egongo litzateke kopuru bat ala bestea.

UNCTAD Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziak Tobin tasak urteko 720.000 milioi dolar biltzea ahalbidetuko zuela ondorioztatu zuen, zati berdinetan gobernu biltzaileen eta herrialde txiroenen artean banatzeko. Nazioarteko zenbait eragile-

ren arabera, bildutako zenbatekoaren %10 nahikoa litzateke, planeta-ko biztanle guztiei osasun laguntza emateko, malnutrizio larriena desagerrarazteko eta mundu guztian edateko ura eskura izateko; eta %35ari esker biztanle helduen alfabetismo tasa erdira jaitsi liteke eta lehen mailako hezkuntza unibertsal bihurtu.

EBk tasa hori praktikan ezartzeko eskatu zion NDFri. Ikusteko dago Kanadako G-20 gailurrean hori erabakiko den

Tobin tasaren sustatzaile berriak

Orain arte Tobin tasaren aldekoak globalizazio kapitalistaren aurkako taldeen inguruan zeuden. Zalantzarik gabe, 1970eko hamarkadan *Le Monde Diplomatique* aldizkarian Ignacio Ramonet zuzendariak azaldutako ikuspuntuak eragin handia izan zuten horretan. Tobin tasa sortzeari buruzko eztabaida eragin zuen eta tasa sustatzeko elkarte sortu zuen, ATTAC (Herritarrei Laguntzeko Transakzio Finantzarioak Zergapetzearen aldeko Elkartea). Hala, talde altermundistak tasaren alde hasi ziren; eta urte horietan eztabai-

da kalean eta zenbait parlamentutan zabaldu zuten. Jacques Chirac Frantziako orduko presidentek berak tasa defendatu zuen partzialki. Bestalde, Venezuelako presidente Hugo Chavezek eta Argentinako Nestor Kirchnerrek abiarazitako Hegoaldeko Banku berriak eskualde mailan ezarritako Tobin tasa baten bidez lortutako diru-sarrerekin kapitalizatzeko aukera aztertu du. Munduko Bankuarekiko (MB), Nazioarteko Diru Funtzarekiko (NDF) eta Garapenerako Banku inter-amerikarrarekiko duten autonomiari eustsiko liokete horrekin.

Azken hilabeteotan, Gordon Brown britainiar lehen ministro izandakoak ekimena berrabiarazi du, azken G-20 gailurrean tasa hori dibisez gain transakzio finantzario guztien gainean ezartzea proposatu baitzuen. Sarkozyk, Merkelek, Barrosok eta Almunia proposamena babestu zuten. Eta, hala, joan den abenduan, EBk tasa hori praktikan ezartzeko eskatu zion NDFri. Ikusteko dago Kanadako ekaineko G-20 gailurrean, azkenean, ezartzea erabakiko duten ala ez. Paradisu fiskalak desagerrarazteko hartu zituzten erabakiek ez dute oraindik emaitzarik izan eta horrek Tobin tasaren gaian oso zuhurrak izatera behartzen gaitu. ■

Babeslea: Gaindegia



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea
Zatoz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque
Observatory for the development economic and social of the Pays Basque

Maria Luisa Mangado

NaBaiko parlamentaria, Hezkuntza gaietan

«Jende askok barneratu du ingelesaren aldeko diskurtsoa»

Ikasturtea bukatzen ari da, legealdiaren amaiera ez da oso urrun, eta euskararekin lotutako aferak Mangadoren egunerokoaren parte inportante izan dira.

GONTZAL AGOTE
Argazkia: Josu Santesteban

Legealdiari urtebete baino gutxiago gelditzen zaio. Nola baloratzen duzu hezkuntzan Parlamentuan egindako lana?

Gauza asko ikasi ditut, baina batzuetan dena komedia moduko zerbait dela iruditzen zait. Eta gure lekuan egotea, oposizioan, askotan etsigarria da. Lan handia hartzen duzu proposamenak aurkeztzen, handik eta hemendik gauzak egokitzten saiatzen zara, besteek ere onar ditzaten, eta behin eta berriro, gu izateagatik, kanpora. Hezkuntzarekin lotutako ehundik gora emendekin edo proposamen aurkeztu ditugu eta batere ez digute onartu, ezta oinarritzkoena ere.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, Hezkuntzara bideratutako dirua dezente murriztu du Nafarroako Gobernuak, bereziki euskarari lotutakoa. Krisia euskararen kontra egiteko baliatzen ari da?

Bai, nahiko argi dago Nafarroako Gobernuan krisi ekonomikoa erabili dutela eta orain arte ausartu ez diren gauzak egitera ausartu direla. Euskararekin lotutako sailetan ehuneko 50eko jaitsiera eman da. Beste batzuetan, zuzenean hainbat dirusail desagertu da. Murrizketa horiek, batez ere, irakasleen formazioan, eskoletako baliabideetan edo eskolaz kanpoko jardueretarako



“Errealismo politikoz jokatu behar da Nafarroan, urratsez urrats joan behar da. Baldin eta hurrengo hauteskundeak irabazten ez baditugu...”.

diru-laguntzetan gertatu da. Horrez gain, urte batetik bestera Euskarabideko aurrekontua ehuneko 25 jaitsi zen.

Euskarabideak duen arazo bakarra ez da ekonomikoa.

2008an institutu autonomoa autonomo gisa eratzea lortu zen, lau milioi euroko aurrekontuarekin.

Gure ustez, aurrerapauso polita izan zen, baina orain adarjotze huts bihurtu da. Aurrekoan, guk eskatuta, Xabier Azanzak agerraldia egin zuen Parlamentuan. Harekin batera Catalán kontseilaria etorri zen. Azanza isil-isilik egon zen, ez zuen deus esan. Gaur egun Gobernuaren eramaten ari den bidea guztiz babesten du Euskarabideko ardura-

dunak. Euskarabidearen asmoak baliagarriak dira, baina ez dira bete, altzaririk gabeko etxea eraiki dute.

Vascuenceren Legearen aldaketa txikia onartu zuen Parlamentuak, lau udalerri eremu mistoan sartzeko aukera. Prozesua korapilatsua izan zen, CDN gobernutik botatzea ekarri zuen eta PSN atzera eta aurrera ibili zen. Nola ikusten duzu aldaketa?

Penagarria izan da. PSNren jokabidea oso maltzurra izan da. Hasieran, Berriain sartzeko proposatu zuten, eta egun batetik bestera hori kendu eta Belaskoain sartu zuten. Horrez gain, proposamenen beste aldaketa bat sartu zuten: ez zela nahikoa Parla-mentuak eremu mistoaren aldaketa onartzea, udalek ere onartu beharko zutela. Horrela, Noain sartzeko onartu zen, baina gero herrian ez dute ezta eztabaidatu ere, UPNk gehien-
go osoa duelako.

PSN urrats berriak emateko prest ikusten al duzu?

Haiek ez dira legea aldatzearen aldekoak, komeni zaienean baino ez dute aipatzen halakorik. Haiek izan dira Euskararen Legearen sortzaileak eta horrekin ados gaude. Orain ikusi dute hainbat aldaketa gertatu dela –demografiarekin eta hirigintzarekin lotzen dituzte– eta zabal-
tzea onartu dute, baina horraino.

Artaxoan eta Mendigorrian argi ikusi da. Gurasok hizkuntza eskubiderik ez dutela esan dute, hori salatzeak manifestazioa antolatu zuten, euskara askatasunez hautatzeko aukera izatea eskatuz. Guk bi herri horietako eskola publikoan euskaraz ikasteko zein eskari zegoen jakiteko mozioa aurkeztu genuen, eta hori ere ez zuten onartu.

Hauteskundeak ailegatzen direnean beste esparru bat lortu nahiko du PSNk, beharra izango dute, eta agian horretarako erabiliko dute

euskara. Orduan beste aurpegia erakutsi nahiko dute, euskararekiko aurpegi atsegina.

“Hezkuntzarekin lotutako ehundik gora emendakin edo proposamen aurkeztu ditu NaBaik eta batere ez digute onartu, ezta oinarritzkoena ere”

Vascuenceren Legearekin bidea zein da, mugak mugitzea ala mugak desagerraraztea?

Errealismo politikoz jokatu behar da Nafarroan, urratsez urrats joan behar da, nahiz eta urratsak txikiak izan. Baldin eta hurrengo hauteskundeak irabazten ez baditugu...

“Gobernua eramaten ari den bidea guztiz babesten du Euskarabideko arduradunak”

Azken urteotan Nafarroako Gobernuaren estrategia ingelesa lehenetsia izan da. Nola egiten ahal zaio kontra diskurtso horri?

Zaila da, instituzioak gogor ari direlako ingelesa saldu nahian, ingelesa euskara ikastearen aurka jarritz. Diote ingelesa hizkuntza komertziala dela, hizkuntza hori baino ez dela baliagarria... Aniztasunaren aldeko diskurtsoa zabaldu behar dugu. Planifikazio egokiarekin umetatik gai gara edozein hizkuntza ikasteko, ingelesa eta beste. Zergatik ez txinera? Auskalo hemendik gutxira txinera ez ote den izango negozioetarako hizkuntza hori!

Has gaitezen gutxienez Nafarroako hizkuntzarekin, harro egon beharko genuke dugunarekin. Lehendabizi guretatik eta gero beste hizkuntzak.

Euskaldun edo euskaltzalearentzat ideia hori nahiko argi dago. Baina nola helarazi halakorik euskal girotik urrun bizi denari, bereziki gurasoei?

Zaila da, ez dira konturatzen bata ez doala bestearen kontra, euskara eta ingelesa guztiz bateragarriak direla. Jende askok barneratu du diskurtso hori. TIL ereduaren bidez eta horren inguruko propagandarekin argi dago zein mezu zabaldu nahi duten: mundu globalizatuan hizkuntza bat nagusitu da, ingelesa. Hori dela eta, munduan barna ibiltzeko ingelesa beharko dute gure seme-alabek. Mezu hori jendea-
ri ailegatzen zaio, dudarik gabe.

Militantea ez den jendea inge-
saren abantailak baino ez zaizkio ailegatuko eta diskurtso horri kontra egitea zaila da. Nolabait adminis-
trazioak zentzuz jokatzeko lortu behar dugu. Esate baterako, inportantea izango litzateke Euskarabideak euskararen aldeko diskurtsoa izatea, baina ez du deus egiten, kontrako.

Euskararen aldeko manifestazio jendetsua egin berri da Iruñean. Horrek eraginik izaten ahal du Nafarroako Gobernuaren jokamoldean?

Haiengan ez du eraginik izango, horrelakoetan itsuarena egiten dute; “pasako zaie”, pentsatzen dute. Ona izan da, batez ere, guretzako. Oso isilik ginen, horrenbeste zapalketa jasan eta ahal bezala ari zen bakoitza agoantatzen. Hemen gaudela esateko oso inportantea izan da, bai guretzako, eta Nafarroa osorako. Euskaldunon autoestima eta euskaldun sentitzearen harrotasuna berriro aldarrikatzeko balio izan du. ■

Babeslea: Getxoko Udala

getxo euskalduntzeko hitzarmena

9E+1 EUSKARA MERKATARITZARA

getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO

gehi@getxo.net

Itzulpen eta maketazio
zerbitzua urte osoan eta
doan Getxoko
merkatarientzat

EUSKARA ZERBITZUA • Tel. 94 4660010 / Faxa: 94 4660014 • E-posta: euskara@getxo.net

Euskararentzako laguntzak %3 gutxiago EAEn

2010EAN Eusko Jaurilaritzak 12.690 euroko diru-laguntzak emango ditu, iaz baino 410.000 euro gutxiago. Atal batzuek ez dute inolako gora-beherarik izan, hala nola euskalgintzak (1.339.000 euro), hedabideek (5.725.000 euro) eta IKTek (1.626.000). Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak iaz baino 100.000 euro gehiago izango ditu, eta diru-laguntzetan behera egin duen alor bakarra LanHitz da, alegia, eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko alorra: iaz 2.700.000 euro jaso zituen eta aurten 2.200.000 euro izango ditu. Jaurilaritzak diru-laguntzak alor horretan murriztea erabaki

du, besteak beste, iaz horretara bideratutako laguntza osoa ez zelako erabili. Kontua da enpresei eta erakundeei, euskara bultzatzeko egindako planen %60 ordaintzen diela Jaurilaritzak, eta gainerakoa beraiek ordaindu behar izaten dute. Hala, iaz diruaren zati bat banatu gabe geratu zen. Aurten, enpresek laguntza gehiago eskatuko balute, laguntzarik gabe ez liratekeela geratuko argitu du Ivan Igartua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinazio zuzendariak.

Kontsumitzaileen dekretuak atzera

AURREKO legegintzaldian, 2008ko uztailen, onartu zuen Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntz

Eskubideei Buruzko dekretua Eusko Jaurilaritzak. Saltoki handiei eragiten zien eta bezeroei, euskaraz eta gaztelaniaz, bietara zerbitzua eskaintzera derrigortzen zituen. Hala ez izanez gero isuna izango zuketan. Sozialisten gobernua bertan behera utzi du dekretua. Errealitate soziolinguistikoak horretarako aukera eman arte hartutako erabakia dela adierazi dute, ez da beraz isunik izango.

Antzerkizale Elkarteak sortu da

EUSKAL HERRIKO Antzerkizale Elkarteak du izena eta helburua zazpi probintzietan sakabanatuta dauden indarrak biltzea eta euskarari hauspoea ematea.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Futbol sari milioidunak

Aste honetan eta hurrengoetan, milaka milioi pertsona Hegoafrikako Munduko Futbol Kopari begira egongo dira. Telebistaren eta teknologia berrien bidez espektakulu hori planetako txokorik ezkutuenara iritsiko da. Agian, futbol zaleei hainbeste interesatzen ez zaiena da —dena edo ia dena justifikatzen baitute— “kirol” honek mugitzen duen diru kopuru erraldoia, bai publizitatean eta baita jokalariek jasoko dituzten prima milioidunetan ere. Selektzionatuak izateagatik edo azken laurdenetan nahiz azken zortzirenetan parte hartzeagatik jasoko dituzten sariez gain, lehiatzen diren 32 selektzioek sari berezia dute hitzartuta Munduko Kopa irabaziz gero. 32 selektzioetatik “Espainiako selektzioa” —La Roja edo Rojigualda— da hoberen ordaindutakoa: 550.000 euro jokolari bakoitzeko. Munduko sarien rankinean Argentinak segitzen die 520.000 euroekin eta ondoren Ingalaterrak 470.000 euroekin. “Frantziako selektzioa” jokolari bakoitzak 300.000 euro kobratuko lituzke Munduko Kopa irabaziz gero. “Espainiako selektzioak” beraz, talde teknikoak barne, Munduko Kopa irabaziz gero 15 milioi euro kobratuko lituzke.

“Espainiako selektzioa” jokalariek, guztiak milioidunak, “krisi ekonomikoaz jabeturik” azken laurdenetan edo zortzirenetan sartzeagatik jasoko luketen sariari uko egingo diotela esan dute! Haiek, hain patriotak, hain harroak *roja* edo *rojigualda* soinean eramateagatik, hain “kontziente krisi ekonomikoarekin”, ez die ordea 550.000 euro horiei uko egin. Egoera hori, bai eta jokalarien eta entrenatzaileen fitxaketa multimilioidunak ere, edo San Mames berriaren eraikuntza, eskandalua eta iraina dira langabezia daudenentzat eta krisi finantzario, ekonomiko eta sozial honen ondorioak jasaten ari diren langile eta pentsiodun guztientzat.

Juan Mari Arregi

BAHEA

gipuzkoaenskara.net-en Alberto López Basagurenk Quebec-[ez](#) [esanak](#): “Salbuespenak albuespen, nekez aurkituko ditugu ingeles-hiztunen artean frantsesaren aldeko hizkuntza bakarrek politikaren kontrako etsaiak, beti ere, haien hizkuntza erabiltzeko eskubidea bermatuta badute, egun gertatzen den gisan. Ingeles-hiztunak ohartzen ari dira aberasgarri dutela frantsesa ere ikastea eta ez dute inolako arazorik Quebec-[era](#) iristen diren etorkinei lehenbizi frantsesa ikasteko beharra ezartzen bazaie.


Frantsesa ezartzearen aldeko politikaren etsaiak etorkinen artean aurkituko ditugu; baina ez dira bakarrik. Gero eta gehiago dira frantsesek bakarrik eta ezinbestez ikasi behar izatea gogoko ez duten frantses-hiztunak. Frantsesek ikasi nahi dute baina baita ingelesez ere, kaltegarri ikusten baitute, frantsesa babesteagatik, ingelese ondo menderatzeko aukera alferrik galtzea”.

Estrategikoa dirutan neurtzen denean

PRESOEN hiru abokatu eta beste zazpi lagun atxilotu zituen joan den apirilean Guardia Zibila eta operazio hori gauzatzeko banatutako agiriaren berri izan da joan den astean. Aspaldi genekien hor kontatutakoa, baina hotzikara sortzen du hain zehaztua ikusteak. Harribitxi ugari du agiriak, baina muina esaldi honetan da: «Atxilotuak tratatzeko moduaren helburua hau izango da: adierazpenen bat lortzea, akusazio judizialak berreste aldera». Tortura eta tratatu txarrak alegia. Atxilotuetako batzuei erre-zeta hori, besteei "tratu bikaina". Eta operazio horretan, zehatz-mehatz bete zen agindutakoa, atxilotuek gerora jakinarazitakoaren arabera: hiru abokatuak eta Erramun Landa EHuko irakasleak ez zuten torturarik jaso eta beste seiak tratatu txarrak, kolpeak eta bestelako irain ugari jaso zituzten.

Dagoeneko hasi da "bertsio ofiziala" lanean: agiri hau guardia zibil bakarraren kontua ei da. Eta bertsio absurdoen zerrenda luzea dator berehala gogora: garai bateko manifestari hegalariek —poliziek airera tirokatzean zauritzen ziren haiek— gaur egun ustezko etakidea atxilotzera doazen 10-20 guardia zibil erasotzen dituen atxilotua bilakatu da. Edo errazago, torturatua ETako kide bilakatzen da, ETak torturak salatzea agintzen ei dielako bere militanteei. Edo kontraerasorako bertsioa: edo atxilotuak frogatzen du torturatu dutela edo faltsua da, beraz irainetan ari da eta horrek agintarien salaketa ekarriko du.

Hala kontatuta, txiste itxura hartzen du honek guztiak, baina eguneroko ogia da oraindik euskal gizartean eta ez salbuespena, torturarekiko kritikoa den zenbait gunetatik iradokitzen den moduan. Honen guztiaren kontrastea are



ARGAZKI PRESS

ikaragarriagoa da Jose Luis Ramirez Demokraziarako Epaileak (JpD) erakundeko bozeramaileak *Berriari* adierazitakoa irakurri ondoren: "Atxiloaldiaren helburua ez da atxilotuaren aitortza lortzea. Atxilotutako helburua atxilotua epailearen esku jartzea da; besteak beste, alde egin ez dezan (...) Ez dut ondo ulertzen zergatik betetzen den atxiloaldietako epe osoa".

EUSKARAZKO HEDABIDEOK arazo bat dugu: bizi garela justu-justu". Juan Mari Larrarte ETKo kontseilari ordezkariak egindako adierazpenak dira eta bat nator berarekin. Ez da oraingoa kontua, dena den, beti egon gara molde horretan, behintzat publikoak ez garen medioak. Krisia gurean bizi ohi da, baita oparotasun garaietan ere, baina egungo krisi sasoi betean, larrialdi egoera areagotu egiten da euskal prentsan ere. Kontsumoaren beherakada eta murrizketa publikoen ondorioz, salmentak oro har gutxitu dira, bereziki publizitatea eta egunkari edo aldizkariena.

Paperezko prentsaren sektoreak mundu mailan bizi duen krisi gogorak eraginda, gure jardueraren hausnarketa egin eta saio eta hutsegite metodologia behin eta berriz astintzera behartuta gaude. Euskal Herrian zein Chicagon gertatzen da hori eta ari garenoi dago-

kigu klabeetan arakatzea eta asmatzea.

Hori da gauza bat eta bestelakoa da diskurtsoetan eta paperetan esaten den estrategikoa den sektore batean zenbat inbertitzen den —gurean diruz laguntzen zaigu, zentzu karitatiboan ia—.

Milioia gora-behera, azken urteetan euskarazko hedabide ez publikoek denera 7-8 milioi inguru jaso dituzte zuzenean Eusko Jaurlaritza eta diputazioetatik gure jardunagatik. Ez dela gutxi pentsa daiteke, eta egia da; gainera funtsezkoa da gure biziraupenerako, eta herri erakundeei aitortza hori egin behar zaie. Baina horrek ezin gaitzake iparra galtzera eraman, batez ere diru publikoaz egiten den erabilera ikusita.

Benetan estrategikoa AHTren proiektua da (10.000 milioi euro Euskal Herri osoan). Edo super-sur saihebidetako proiektua (425 milioi euro), Zubietako erraustegi proiektua (400 milioi euro)... BEC egiteak 420 milioi euro kostatu zuen, San Mames Berriak 175 milioi euro balioko du eta Jaurlaritzak 55 jarriko ditu... Artium museoak, berak bakarrik, 5 milioi euroko aurrekontua du, Jaurlaritzak euskarazko hedabideak laguntzeko aurten gastatuko duena gutxi gora-behera. Zerrenda gura beste luzatu dezake irakurleak, adibideak ez baitira falta azken urte luzeotan.

Horiek estrategikotzat saltzen zaizkigu eta agintariekin sinesten dute hori, eskainitako diru kopuruek argi eta garbi adierazten duten moduan. Koherentzia agerikoa da. Aurten adibidez, Jaurlaritzak 10 milioi euro bideratuko ditu euskara sustapenerako. Aldea begi bistakoa da, San Mames berria laguntzeko baino bost aldiz gutxiago. Koherentzia aipatzerena irakurlearen esku utziko dut.

PELLO ZUBIRIA

Mikrouhin labea, sukaldeko erregina ala sorgin gaiztoa?

Joseph Mercola medikuak Amerikako Estatu Batuetatik zabaltzen duen newsletterrean berriro ohartarazi du Mendebaldeko sukaldeetan tresna nagusi bihurtu den mikrouhin labearen arriskuez. Teknologia zahar-berrien erabileraz eta herrialde aberatsetako jendeon elikatzeke moduaz gogoeta egiteko aukera ematen du.

TAKE CONTROL ON YOUR HEALTH (Zure osasunaren jabe egin zaitez) dio Joseph Mercola mediku iparramerikarrak astean birritan mundu osoko milaka herritarri kitorik bidaltzen dien albiste orri elektronikoak. Maiatzaren 18koan honakoa zen artikulu nagusiaren titulua: “Zergatik debekatu ote zuten errusiarrek gaur familia amerikarren %90ean dagoen tresna?”. Mikrouhin labeaz ari da, 14 orriko dossierrean ia etxe guztietan dagoen tresna horren arriskuez ohartarazteko.

Joseph Mercola (1954) medikurik famatuenetakoa da sendabide alternatiboez interesatzen direnen artean. Ikasketaz mediku eta osteopata, enpresa dauka antolatuta osasun gaien inguruan: osagarri edo suplementuak saltzen ditu (denda elektroniko aberatsa eskainiz), liburuak plazaratu ditu, *newsletter* eta bestelako argitalpenak, blog propioa animatzen du, eta abar luzea.

Eskaintza zabal hori ez da gizon bakarrak landua, noski: ekipo osoa dauka lanean jarrita. Mundu osoko sendalari alternatiboek gomendatzen dituzten produktu gehienek dute oihartzuna Mercolaren idatzie-tan eta dendan.

Elikadurari dagokionez, Mercola zereal modernorik gabeko —kinoa, artatxikia eta beste bakan batzuk salbatzen ditu— dietaren aldeko

sutsua da. Esnerik hartzekotan, esne gordinaren aldekoa da, pasteurizazioaren kontrakoa. Janariak ahalik eta gutxien sukaldatzea proposatzen du, ahal dela jaki gordinak kontsumituz. Eta gozagarri artifizial berri guztien etsai amorratua da.

Elikatzeko moduaz European Mercolaren baliokide bat nabarmentzekotan Jean Seignalet dokto-rea aipatu beharko litzateke, *La Alimentation ou la Troisième Médecine* (gaztelaniazko edizioa ere badago) liburuaren egilea. Oronen buru, Neolitoaren aurreko elikadurara bihurtzeko joeraren aldekoak dira, Dieta Paleolitikoa izenekoaren sustatzaileak.

Mercola beti azaltzen da txertoen kontrako, farmaziako industriaren arerioa da, botika sintetiko gehien ordez erremedio naturalak gomen-datzen ditu eta janarien sukaldatzean teknologia eta material berriek eragiten dituzten pozoiz eta bestelako kalteez ohartarazten du.

Zenbait agiritan irakur daitekeen, tartean Wikipedian, talde kontserbadoreetako kidea da Joseph Mercola. Hau ere ez da bitxi-gia European, non mediku eta sendalari asko joera espiritualista eta eskuindarrekin lotu izan den. Hala ere Mercolak oihartzun zabala du osasunaz eta bizimodu naturalaz kezkatutako jende ezkertiarren artean.

Argazkia Centro Galego de Lleida elkarteak dauka bere blogean eta iaz antolatu zuten “Curso de cocina rapida” ikastaroan egina dago. Horra bi dozena eta erdi herritar sukaldeetako erregina bihurtu den tresnari zukua nola atera ikasten. Etxebizitza-rik gehienetan tresnarik arruntena adina usatzen da gaur mikrouhina, gosaritako esnea berotzeko bezala oilaskoa erretzeko. Aldiz, teknologia honen arriskuei buruzko eztaba-daz kasik deus ez daki gehiengoak. Medikua eta zientzialariaren artean ere gutxiengo dira etxetresnok kaltegarriak direla diotenak, baina ale batzuek iritzia aldatu dute jakin dutenean laboratorioetan ikertzaile batzuek mikrouhin labeak erabiltzen dituztela minutu labur batzuetan lortzeko lehen asteetan luzatzen ziren erreazioak. Baina azterketa epidemiologikoa egitea zaila da gaur: jende guztiak jotzen ditu erradiazio mota batek ez bada besteak, norekin alderaturik ez dago.

Mikrouhin labeaz ari garela, Mercolaren artikuluan —*Why did ban the Russians an Appliance Found in 90% of American Homes?*— deigarri egiten da jakitea sobietarrek debekaturik eduki zutela 1976tik Perestroika iritsi arte

Mikrouhin labea armada naziak asmatu zuen II. Mundu Gerran, Sobiet Batasunean barrena bidaltako soldadu alemanei otorduak berotzeko. Alemanei, hauen porrotarekin, ikasiko zieten teknika errusiarrek eta amerikarrek. Hauek hasieran *radar range* (“radar labea”) deitu zioten asmakizun berriari, hegazkinak topatzeko erabilitako radarraren uhinen frekuentzia berdintsuan lan egiten zuelako.

Errusiarren kezak

Errusiarrek ohartarazi zuten inork baino lehen labeon arriskuez. Mercolak hartu ditu sobietarren argudioak *Powermatch* gune ingelesean laburbildu dutenetik. Hala, uhinen bidezko beroketak ekarriko luke elikadura askotan kantzerra eragiten duten produktuak sortzea, janarien elikatzeke ahalmena %60 eta %90 artean gutxitzeaz gain. Gero mikrouhin labearen kontrako informazio berriak ugaritu dira errusiarren paperak zahartu ahala.

Labeok janaria berotzen dute erradiazio elektromagnetikoak eragi-



nez, 2,4 gigaHertzeko frekuentzian. Uhinon eraginez jakiek dauzkaten ur molekulak oso frekuentzia handiko bibrazioz egiten dute dar-dar, elkarrekiko igurztearen ondorioz janaria berotuz. Berotze sistema hau osasungarria ez dela diote kritikoek.

Uhinek era berezian berotzen dituzte labeotan jakiak, ura daukaten zatietatik hasita. Askok uste dutenaren kontra, estreina kanpokaldeko geruzak dira berotzen, eta beroketa ez da uniformea.

Bestalde, Mercolak aipatzen dituen ikerketen arabera, jakietako ura gisa honetan berotzearen ondorioz janari horien egitura kimikoa ere eraldatzen da. Alde batetik elikatze ahalmena asko gutxituz. “Erosi dituzun barazki organiko

eder horiek, zure buruari diruz edo lanez oparitu dizkiozunak, mikrouhin labeak janari ‘bizirik gabeak’ bihurtu dizkizu, eta gaixorazi zaitzaketenak!”. Hori esateko oinarritzen da Eskandinabian, Japonen, Australian eta bestetan egin diren ikerketetan, non ikusi baita minutu laburreko berotualdian barazkiek beren osagai fenolikoak, bitaminak eta abar galtzen dituztela portzentaje ezberdinetan.

Beroketa honek sortu ditzakeen produktu kantzerigenoak dira beste kezka iturria. Esan gabe doa arriskua larriagoa dela labean janaria estalgarri daramatzan plastiko eta bestelakoak kendu gabe sartuz gero, hauek gai arriskutsutan degradatzen dira eta: PET direlakoak, benzeno-

ak, toluenoa, xilenoa, dioxinak... Baina horiez gain janariak berak elektrouhinez berotzeagatik zenbait gai kantzer-eragile sortzen duela uste duen adituak badira.

Eta labeak berak inguruan barreiatzen dituen erradiazioak? Etxetresna zaharkituak edo matxuratuak ateko zirrikituetatik galtzen dituen erradiazioak bereziki kaltegarriak direla azpimarratzen du Mercolak. Polemiketarik haratago, bistakoa da mikrouhin labea familia gehienetan zabaldu denean eta haurrek ere txikitatik erabiltzen dutenean galdu egin zaiola beldurra hain arrunta bilakatu den tresnari.

Mikrouhinen gaiak zerikusi handia dauka orain gutxiago aipatzen diren telefoniako antenek eragiten dutenarekin eta Wifi sistemaren zein sakeleko telefonoen inguruko polemika berriagoekin. Hauei egozten zaizkien kalte berdintsuak egozten dizkiete Mercolak eta beste kritikoek mikrouhin labeek: loa galtzea, buruko minak, immunitate sistema ahultzea, urduritasuna-depresioa, gosea galtzea, ikusmen arazoak, eta abar.

“Kezkagarriena zera da –dio Joseph Mercolak maiatzaren 18ko berripaperean– inguratzen gaituen erradiazio guztiarekin, izan telefono mugikor, irrati antenna, satelite, telebistako antenna, hegazkinentzako radar, etxetresna elektroniko, ordenadore eta Internet, ea ez ote garen nahi gabe denok esperimantu epidemiologiko izugarri baten parte, gizadiak historian sekula ikusi ez duen eskala batean”.

Baina inor bizi al da mikrouhin laberik gabe XXI. mendean? Leku bakanen bila hasi beharko. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Itxaro Borda

Dogmak

Erromako Aita Sainduaren ez-hutsegintasunaren antzera, 1983an François Mitterranden Gobernuak hirurogei urteetan erretretara joateko ahalaren alde hartu erabakia *dogma* itsusi baten pare aurkezten digute eskuineko buruzagiek. Nicolas Sarkozy bera iragan astean tehetaz ari izan zen jende (bur)zoratuaren begietan Mitterrand zenaren ondarea suntsitu beharrez. Gorrientzat alabaina, bereziki sindikatuentzat langileen eskubideak ukiezinak dira, nahiz eta denborarekin hauek ere zurien arroila berdinean lerratzen diren. Karrikako batasunaren sinboloa hautsiz, maiatzaren 27ko greba egunera ez zuen deitu FOk. Ausentzia horrek menturaz ardura ondoriotsua duke opor bezperetan eta Munduko Futbol Txapelketaren garaian parlamentuan eztabaidatuko direnean erretreten erreformaren modalitateak. Eta ez dezagula diputatuengan kontagure oinarritzko dretxoen defendatzeko. Berenak segurtatu dituzte eta kito.

Nehork ez du sindikatuen eraginean ilusiorik egia erran.

Greba egiten dugu boteretsuek eta merkatuek akuilatu proiektu horren aurka garelako, ez baitezpada sindikalizatuak garelako, biak nonbait lotuak diren arren. Eskubide sozialen kontrako gerla orokor gorde honetan langile-elkarteak ahulegiak dira. *Teleberrietan* ez zaie hitz une piliskarik uzten politikarien sarraskiak salatzeke edo mobilizazioen nondik norakoak argitzeke. Gobernuaren ahots bilduak baizik ez dira entzuten eta grebek sortu trabak zerrendatzen dituzte kazetari ahobabalek. Langile arrunt gero eta gutxiago ateratzen da pantailetara, non ez den belaunaldi gazteen moduen klase domestikatuaren aldearik txarrenak azpimarratuz, lantegiak zartaraztera doazenean edo beraien buruaz beste dagitenean. UMPk dogmatizatu lana azaldu ezina da jadanik.



DANI BLANCO

Alta, desagertzen doan lan proletarioak du oraindik ere oligarkek partez ordaindu nahi ez duten erretreten erreforma bere sakelatik pagatuko: adin legalaren atzeratzea, lanurteen zenbakia emendatzea, pentsioen apaltzea eta defizita zehatz batzuen betetzeko hilabetesarian eginiko diru-zurgatze berriak. Mendekoste astelehena jaien zerrendatik ezabatu zuten eran, aipatzen da beste besta-egun baten ebastea dagoeneko lurrean gertatzen denarekiko elkartasun izpirik erakusten ez duten zaharren onerako. Bozkatzaile sutsuenak hauek ditu Sarkozyk. Hamar urte eder dituzte denek begimenean, gero *alea jacta est*: Europa hau *Blade runner* edo *Metropolis* filmakoen girokoa bilakatuko da.

« Harritzen nau handizki gu, Frantzia behereko hiritarrak, euskaldunak barne noski, funtsezko langile edo laborari eskubideei zein gutxi atxikiak garen ikusteak. Jende oldeak borrokatu dira horretarako. Ezer ez zaigu oparitua izan. Lan-egun baten ahitzeak izutzen gaitu, nolabait estaltzen dugula antzinakoen altxorren zaintzeko altxatzen ez bagara anitzez gehiago dukegula galtzeko »

Harritzen nau handizki gu, Frantzia behereko hiritarrak, euskaldunak barne noski, funtsezko langile edo laborari eskubideei zein gutxi atxikiak garen ikusteak. Jende oldeak borrokatu dira horretarako. Ezer ez zaigu oparitua izan. Lan-egun baten ahitzeak izutzen gaitu, nolabait estaltzen dugula antzinakoen altxorren zaintzeko altxa-


tzen ez bagara anitzez gehiago dukegula galtzeko. Gobernuak, zurrumbilo kultural zentralistek eta etxeko jaun mentalitateko herritarrek destitlatzen duten liturgia, litania lanzinantearen maneran errepikatzen dugu, letargia lobotomizatura garamatzala. Gerla mediatikoa irabazi dute eta dogmarik ez dugunotaz jada plazer dutena egin dezakete.

Egitura neoliberalaren helburu ez errana laster erretretarik nehoi ez ematea da, 1945ean bideratu segurtasun soziala kentzeraino murriztea eta azken muga, opor ordainduen 1936ko legearen erraustea. Sozial alorrek *Chemin des Dames* lohitsu itxuratuko duela, interes partikularren eta CAC 40 indizeak gaztigatu merkatu espekulatzailen meneko baizik ez litekeen gobernu baten legimititateaz eska lezake batek.

Meli meli lama sabactani? ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

Tel.: 943 801 664

1



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 laguneko taldearentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

2



Off-On Yolanda Arrieta

5 liburu opari

Donostia GIPUZKOA

www.erein.com

3



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

ikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramion.org

4



Esait

2 kasko
opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

5

AZKEN IRABAZLEAK (2232. Argia)

LAIA

- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)

ESAIT

- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)

TXURI-URDIN

- Enrique Llorente Silvestre (Donostia)
- Salvador Zabaleta Arrizabalaga (Gasteiz)

UEK U10

- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)
- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)
- Gorka Bueno Mendieta (Bilbo)

CD sorta: DES-KONTROL / TRIKIZIO / UNE / OST

- Peio Garmendia Garmendia (Arrigorriaga)
- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)
- Imanol Arluiza Esnal (Donostia)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)

kirolaz ba**da**kit



Azpeitiarra, 2004an egin
zuen debuta, atzelaria da.
Zein da?

- Mikel Labaka
- Mikel Aranburu
- Ronaldinho

**Kirolzale
amorratua zarela
erakusteko prest?**

Hemen dituzu
1.500 galdera txartel
eta CD-ROMean.

**7 urtetik
gorakoentzat**

PREZIOA

15€

**ARGIAren
harpidedunek
-%15**



ESKAERAK
943 37 15 45
www.argia.com
denda@argia.com

